



BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2026

Bilbao Observatorio

LABURPENA

NDFren arabera, *"gerraren shocka eragina izaten ari da energia-inportatzaileetan eta ekonomia zaurgarrietan, eta, era berean, adimen artifizialak sustatutako eskariak mesede egin die munduko balio-kate teknologikoan integratutako herrialdeei. Desinflazioaren munduko prozesua eten egin da"*. Argudio horiek direla eta, NDFk berretsi du (uztaila) munduko ekonomiaren hazkundera % 3,0koa eta % 3,4koa izango dela 2026rako eta 2027rako, eta ez du apirilean planteatutako agertokia aldatu. Proiekzio berriak egokitzapen mota berbera errepikatu du ekonomia aurreratuentzako hazkunde aurreratuan, 2026ko emaitza apur bat murriztuz (-0,1) eta 2027koa bere horretan mantenduz. Zehazki, 2026aren kasuan, AEBren aurreikuspena hobetu du (+% 2,3) eta Euroeremukoa murriztu (+% 0,9; -0,2). Halaber, ekonomia berrien eta garapen bidean dauden kasuan, 2026rako espero zen hazkundearen zati bat (+% 3,8; -0,1) 2027ra pasatu du (+% 4,5; +0,3).

2026ko lehen sei hilekoak kanpoko faktoreen eraginpean jarraitzen du

2026rako hazkunde ekonomikoaren estimazioa % 3,0koa da

Ekainean, Eusko Jaurlaritzak (Ekonomia Zuzendaritza) 2026rako Euskadiko ekonomiaren hazkundearen aurreikuspena mantendu zuen (% 1,9) eta 2027koa hamarren bat aldatu zuen (% 1,7) martxoan planteatutakoarekin alderatuta. Hiruhilekoko bereizketak erakusten du hazkunde ekonomikoaren desazelerazioa izan dela pixkanaka 2026an zehar, % 2,2tik % 1,8ra jaitsi baita urte arteko tasa lehenengo hiruhilekotik laugarrenera, nazioarteko ziurgabetasunak eta Ekialde Hurbileko gatazkaren eboluzioak baldintzatuta.

Euskadiko ekonomiaren hazkundearen aurreikuspena % 1,9an mantendu da (2026)

Lehenengo sei hilekoko afiliazioaren balantzea (hilabeteko batezbestekoa) 200.407 afiliatutara iritsi da; beraz, hazkunde handia izan da 2025eko lehenengo sei hilekoarekin alderatuta (198.322; +% 1,1), 2.085 afiliazio gehiagorekin. Gainera, 2026ko lehenengo sei hilabetetatik aurrera 200.000 afiliazioaren atalasea gaingitu da, ekitaldiz ekitaldi hazten ari den enpleguaren mailaren egonkortasuna berretsiz.

Ekainean, hiribilduan 200.047 afiliatu zeuden (+% 1,4 urte arteko tasan)

Hirian bizi diren pertsonen kontratazio berrien eboluzioak berresten du enpleguaren dinamismo hori, sei hilekoko balantzea 59.428 kontratura iritsi baita, 2025eko ekainean baino 5.133 kontratu gehiagorekin (+% 9,5). Hazkundera handiagoa izan da gizonen artean (+% 11,7; +3.051) emakumeen artean baino (+% 7,4; +2.082), baina adin talde guztietan izan da. Kontratazio mugagabea (+% 16,9) aldizkakoa (+% 6,5) baino apur bat gehiago hazi da, eta zerbitzuek kontzentratzen dute hazkundearen zatirik handiena (+% 10,2; +4.777); ondoren, eraikuntzak (+% 8,8) eta industriak eta energiak (+% 4,1).

Bilbok 20.458 langabe zituen 2026ko ekainean, eta beherakada nabarmena izan zuen hiruhilekoaren barruan (-% 2,6; martxoan baino 549 pertsona gutxiago). 2025eko ekaineko zifra ia berbera (20.443) izan zen ekainekoa. Emtza oso positiboa da hori, eta 2009az geroztik (20.437) hilabete horretan erregistratutako langabezia-tasari baxuenetakoa da. Hiruhilekoko beherakada gizonen zein emakumeen artean gertatu da, baina apur bat handiagoa izan da gizonen artean (-% 2,9) emakumeen artean baino (-% 2,4). Horrez gain, adin-tarte guztietan egin du behera, batez ere talderik gazteenean (-% 8,7).

Erregistratutako langabeziak (20.458 pertsona) minimo historikotik jarraitzen du

Urteko bigarren hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuek diote Bilboko egoiliarren artean 173,3 mila pertsona zeudela aktibo. Horietatik 157,7 mila lanean eta 15,3 mila langabezian. Hala, kalkulaturako enplegu-tasa % 51,03koa da eta langabezia-tasa % 9,02koa.

Enplegu-tasa % 56,5koa da eta langabezia-tasa % 6,8koa

2026ko lehenengo hiruhilekoa datu oso positiboekin itxi da merkataritzaren salmenten kasuan (+% 3,2ko eta +% 2,2ko urte arteko tasa prezio arruntetan eta konstanteetan), eta azken zortzi hiruhilekoetako emaitzarik onena izan da. Txikizkako merkataritzaren (+% 3,6 eta +% 2,2), handizkakoaren (+% 1,9 eta +% 1,3) eta ibilgailuen salmentaren eta konponketen

Merkataritza-salmentek gora egin dute (+% 3,2 eta +% 2,2, prezio arruntetan eta konstanteetan) Enplegu sektorialak hobekuntza-profila mantendu du (+% 1,3)

(+% 8,5 eta +% 6,9) dinamismoak sustatu du hazkunde hori. Gainera, 2026ko lehenengo hiruhilekoan, gora egin du enplegu sektorialak (+% 1,3) eta 2025eko bigarren eta laugarren hiruhilekoen artean erregistratutako hazkundera (+% 1,4, +% 2,0 eta +% 1,4, urte arteko tasan) finkatu egin da.

2026ko bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentek hazkundera izan dute prezio arruntetan (+% 3,1), baina ez konstanteetan (-% 0,1). Elikagaien segmentuak hobekuntza-ibilbidea mantendu du, eta urteko bigarren hiruhilekoan finkatu egin da, bai prezio arruntei dagokienez (% 4,4), bai prezio konstanteei dagokienez (+0,9) baina hein txikiagoan. Aldiz, elikagaiena ez den segmentuak bultzada izan duen arren prezio arruntetan (+% 0,7), prezio konstanteak negatiboan mantendu dira bigarren hiruhilekoz jarraian (-% 2,3 eta -% 1,7).

Merkataritza-gune handietako salmentak hazi egin dira (+% 3,1 prezio arruntetan) elikagaien sektoreak bultzatuta

2026ko bigarren hiruhilekoan 4.290 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian (+% 0,0 urte arteko tasan) eta 7.958 lehenengo seihiilekoan (+% 3,5; +272 unitate). Norbanakoen segmentuaren dinamismoa (+% 5,3 eta +286 unitate) nabarmentzen da, enpresen segmentuak izandako atzeraldia konpentsatzen baitu (-% 0,6; -14 unitate). Ibilbide oso positiboa izango dutela dirudi, 2023ko eta 2024ko lehenengo seihiilekoetan erregistratutako jarduera-bolumenak (6.653 eta 6.691 unitate) hobetu baitituzte, baina pandemia aurreko zifrak baino baxuagoak dira oraindik ere (11.162 eta 10.726 unitate, 2018an eta 2019an).

7.958 ibilgailu berri matrikulatu dira lehenengo seihiilekoan (+% 14,9 urte arteko tasan)

Hiriko hotel establezimenduek 345.524 bidaiari eta 662.269 ostatu-gau kontabilizatu zituzten bigarren hiruhilekoan, eta % 2,5 inguruko urte arteko hazkunde izan zen bi aldagaien kasuan. Hala, seihiilekoko balantzea ere positiboa izan da, eta irabazia nazioarteko segmentuan ezarri da (+% 6,3 eta +% 6,9), ez ordea estatuko segmentuan (-% 2,1 eta -% 3,5), bidaiarien eta ostatu-gauen terminoetan. Hala, jardueraren erdia baino gehiago nazioarteko osagarriarengatik izan da (% 52,2 eta % 57,4 bidaiarien eta ostatu-gauen kasuan).

Bilbok milioi bat ostatu-gau baino gehiago erregistratu ditu urteko lehenengo seihiilekoan.

Seihiilekoko balantze positibo hori 3 izarretik beherako hoteletan eta pentsioetan erregistratutako ostatu-gauetan soilik izan da (+% 11,8), 3 izar eta gehiagoko establezimenduek (-% 1,0) beherakada txikia izan baitute. Hala ere, hiriko hotelen jardueraren zatirik handiena hartzen dute (ostatu-gauen % 72,3).

Lau ostatu-gauetatik hiru 3 izar eta gehiagoko establezimenduetan

Bilboko aireportuak 2.166.655 bidaiari erregistratu zituen guztira bigarren hiruhilekoan, eta 181.759 bidaiari irabazi zituen urte batetik bestera (+%9,2). Loiu gehiengo historikoetara iritsi da beste behin ere, eta 2 milioi bidaiariren atalasea gainditu du lehen aldiz bigarren hiruhilekoan. Nazioarteko segmentuak izandako hazkunderaren eraginez izan da hori hein handi batean (+% 15,9; eta segmentu nazionala +% 3,4), eskaintza finkatuak eta ibilbideen eta helmugen hazkundeak baldintzatuta.

Loiuk 2 milioi bidaiari baino gehiago izan ditu

Apirila eta ekaina artean, Bilboko Portuak 8.985,9 mila tona kudeatu ditu. Horrek urte arteko hazkunde handia eragin du (+% 23,5), eta 17.339,6 mila tona metatu dira urtean (+% 12,3). Emaizta oso positiboak dira baina zuhurtziaz interpretatu behar dira, 2025ean egindako jardueraren gainean konputatzen baitira eta Petronorren geldialdi teknikoak baldintzatu baitzuen jarduera.

Portuko jarduerak hiruhilekoan (+% 23,5) eta seihiilekoan (+% 12,3) izandako susperraldiarekin

Bizkaiko ekoizpen industrialak urte arteko hobekuntzarekin (+% 3,2) itxi du bigarren hiruhilekoa (apirila-maiatza, behin-behineko datua), eta aurreko hiru hiruhilekoetako ibilbidea finkatu (+% 0,9, +% 2,2 eta +% 1,4), eta 2024an eta 2025eko zati batean erregistratutako profil negatibotik urrundu da. Susperraldi hori manufaktura-industrian oinarritu da (% 4,4), eta energiaren, gasaren eta uraren (-% 14,7), erauzketa-industrien

... industriako jardueraren susperraldiarekin (+% 3,2 apirila-maiatza)

(-% 4,0) eta uraren (-% 1,1) sektoretan izandako atzeraldiak konpentsatu ditu. Sektore horiek pisu erlatibo txikiagoa dute eta aldakortasun handiagoa izaten dute oro har.

Zerbitzu-sektoreak 2026 hasieran salmentak gehitu zituen (+% 4,5 eta +% 1,5 prezio arruntetan eta konstanteetan), baina motelago. Jardueraren segmentu guztiek egin dute hobera, batez ere jarduera profesionalak eta zientifiko-teknikoak (+% 7,7 eta +% 4,8) eta ostalaritzak (+% 7,4 eta +% 3,9). Gainerako azpisektoreek portaera lauagoa izan dute, hazkunde nominalarekin baina ez errealekin (prezio konstanteak). Azkenik, enplegu sektorialak hazten jarraitzen du (+% 1,2).

... eta urtea hazkundearekin hasi duten zerbitzu-jardueren salmentarekin (+% 4,5 eta +% 1,5 prezio arruntetan eta konstanteetan)

2026ko lehen hiruhilekoan, Bizkaiko BPGd-a % 2,3 hazi zen, eta 2023ko bigarren hiruhilekoan hasitako hobekuntza-erritmoa finkatu zuen. Enpleguak hazkundea izan du (+% 1,3) eta 505.358 LOB lanpostutara iritsi da, 2024an (494.849) eta 2008an (494.403) erregistratutako enplegua gaindituz. Horiek dira bi erreferentzia maximoak. Perspektiban ikusita, enpleguaren eta BPGaren ibilbideak Lurraldearen erresilientzia berresten du, pandemia, pandemia ostea, ziklo inflazionista, Irango gerra eta Trumpen Administrazioaren inpaktua gainditu baititu, 2019 eta 2026 artean izandako beste gertakari batzuen artean.

Bizkaiko BPGak % 2tik gorako hazkundea izan du...

Milioi erdi lanpostu finkatu dira LOBen

Bigarren hiruhilekoari¹ dagozkion Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapen-datuek erakusten dute Euskadiko ekonomiak % 2,1etik % 0,5era bitarteko hazkundea izan duela urte arteko eta hiruhileko arteko tasan, hurrenez hurren. Bestalde, lanpostuen (LOB) kasuan % 1,3ko hazkundea izan da, eta 13.000 lanpostu inguru sortu dira. Emaizta horiek erakusten dute Euskadiko ekonomia dinamikoa dela, eta Bizkaian gertatzen denarekiko estrapolagarria dela.

2026ko bigarren hiruhilekoan, EAeko BPGd % 2,1 hazi da

Laburbilduz: 2026ko lehenengo zatian ziurgabetasun maila handia izan da nagusi, hertsiki aintzat hartutako jarduera ekonomikoarekiko exogenoa dena, eta kanpo-faktoreek baldintzatu dute egoera hori, aldakortasun handia eraginez energia-produktuen eta zerbitzuen (hornikuntza eta logistika) merkatuetan. Hain zuzen ere, merkatu horien inpaktua ekonomia osora zabaltzen da. Ondoriorik agerikoena inflazio altu iraunkorra da, eta inflazio hori kontrolatzeko neurriek (interes-tasak) bateragarriak izan behar dute hazkunde ekonomikoarekin.

Beste urte batez, lehenengo seiuhilekoa gorabeheratsua izan da eta ziurgabetasuna izan da nagusi

Faktore horiek Bizkaia eta Bilboren agertokia definitu dute. 2026ko bigarren hiruhilekoaren itxierako datuek aurreikusten dutenez, Lurraldeko BPGa % 2 inguru haziko da. Izan ere, jarduera guztiek urte arteko hobekuntza nabarmena izan dute seiuhilekoaren balantzean, eta horrek zerbitzu-jardueren garrantzia -batez ere merkataritzarena eta turismoarena- berresten du. Horrez gain, industria-jarduerak susperraldia izan duela eta eraikuntzak eta garraio-jarduerak indarra dutela erakusten du.

...baina Bizkaia eta Bilbok ekonomiaren hazkunde-erritmo orokorra eta sektoriala mantendu dute...

Eta, batez ere, nabarmendu beharra dago Bizkaia eta Bilbo maximoetan daudela enpleguaren kasuan. Horrek pertsonen eta familien kontsumoa eta inbertsioa sustatzen ditu. Finean, ziurgabetasun koiunturala izan arren (exogenoa eta endogenoa), lehen seiuhilekoko balantzea oso positiboa da, eta, beraz, arretaz begiratu beharko litzaieke epe ertainean "botila-lepo" efektua izan dezaketen egiturazko erronkei (AA, zahartzea).

...emaitza historikoekin enpleguaren arloan

¹ Uztailaren 17an argitaratuak. Bigarren hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak irailaren 18an argitaratuko dira.

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

"Gerraren shocka eragina izaten ari da energia-inportatzaileetan eta ekonomia zaurgarrietan, eta, era berean, adimen artifizialak sustatutako eskariak mesede egin die munduko balio-kate teknologikoan integratutako herrialdeei. Desinflazioaren munduko prozesua eten egin da". Argudio horiek direla eta, NDFk (Munduko ekonomiaren aurreikuspenak²) berretsi du munduko ekonomiaren hazkundera % 3,0koa eta % 3,4koa izango dela 2026rako eta 2027rako. Hortaz, ia ez da aldaketarik izan apirileko proiektzioetatik.

Munduko ekonomia % 3,0 haziko da 2026an

Erakundeak aitortu du faktore kaltegarriak daudela (konpondu gabeko gatazkak edo prezioen zuzenketak finantza-merkatuetan) eta inflazioari arretaz erreparatu behar zaiola oraindik ere. Horrenbestez, honako hau gomendatzen du: *"autoritateek prezioen egonkortasuna mantendu behar dute, espazio fiskala birmoldatu eta egokitzeko gaitasuna indartu"*, batez ere arlo teknologiko-digitalari dagokionez.

Proiektzio berriek apur bat murriztu dute (-1 hamarren) 2026rako hazkunde ekonomikoa eta 2027koa hobetu (+2 hamarren); beraz, ia ez da egokitzapenik egin biurteko osorako. Irango gatazkaren konponbide eraginkorrik ezak (merkatuak eta energiaren prezioak), barne-eskariaren dinamismoak (kontsumoa) eta adimen artifizialean (AA) egindako aurrerapenen translazioak baldintzatu dute herrialde bakoitzean aplikatutako berregokitzapena, oraindik menderatu ez den munduko inflazioaren testuinguruan (2026an eta 2027an % 4,7 eta % 3,9).

Urtarrila eta uztaila artean, NDFk moldatu egin du 2026rako esperotako hazkundera eta 2027ra pasatu du

Hazkunde ekonomikorako (BPGd) data honetan egindako aurreikuspenak:

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2025	2026ko urtarrila		2026ko apirila		Uztaila -2026	
		2026	2027	2026	2027	2026	2027
MUNDUKO BPGd-a	3,3	3,3	3,2	3,1	3,2	3,0	3,4
Ekonomia aurreratuak	1,7	1,8	1,7	1,8	1,7	1,7	1,8
Estatu Batuak	2,1	2,4	2,0	2,3	2,1	2,3	2,2
Eurogunea	1,4	1,3	1,4	1,1	1,2	0,9	1,2
Alemania	0,2	1,1	1,5	0,8	1,2	0,7	1,0
Frantzia	0,8	1,0	1,2	0,9	0,9	0,6	0,9
Italia	0,5	0,7	0,7	0,5	0,5	0,5	0,5
Espainia	2,9	2,3	1,9	2,1	1,8	2,1	1,8
Emergenteak eta garatzen a direnak	4,4	4,2	4,1	3,9	4,2	3,8	4,5
Txina	5,0	4,5	4,0	4,4	4,0	4,6	4,1
India	7,3	6,4	6,4	6,5	6,5	6,4	6,7
Brasil	2,5	1,6	2,3	1,9	2,0	2,4	2,2
Errusia	0,6	0,8	1,0	1,1	1,1	1,1	1,1

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Oro har, proiektzio berriak ekonomia aurreratuetan esperotako patroi berbera errepikatu du, 2026ko hazkundera apur bat murriztuz 2027aren onurarako. AEBri esleitutako proiektzio berriaren egonkortasuna nabarmentzen da talde horren barruan (balioa errepikatu du ia biurtekoan), baina taldeak 2026rako egindako egokitzapena Euroeremurako izan da batik bat, Frantzian (-0,3) eta Alemanian (-0,1) esperotako ibilbidea murriztu baita. Espainiakoa ez

Egokitzapen partekatua, murrizketa oso doituekin 2026rako

² 2026ko uztailaren 8an argitaratu ziren.

da aldatu, eta talde horretako hazkunde ekonomikoaren posiziorik adierazgarriena mantendu du (+% 2,1 eta +% 1,8). Bestalde, ekonomia berrien eta garapen bidean dauden kasuan ere eredu hori bera errepikatu da, 2026rako espero zen hazkundearen zati bat (-0,1) 2027ra pasatuz (+0,3). Hala ere, talde osoaren egokitzapen horrek bere zehaztasun propioak ditu. 2026an hobekuntza izango da Txinan (+0,2) eta Brasilen (+0,5), beherakada Indian (-0,1) eta bere horretan mantenduko da Errusian.

ELGAren aurreikuspenak ez dira hain baikorrak munduko hazkunde ekonomikoarekin (+% 2,8), eta doiagoak izan dira hasierako agertokiari dagokionez (+% 3,4). Zehazki, Estatu Batuen hazkunde % 2an geratuko dela estimatzen du eta Euroeremukoa % 0,8an. Talde horren barruan Espainiaren aurreikuspena nabarmendu du (+% 2,2), barne-eskariaren sendotasuna dela eta. Urteko lehenengo erdia igarota, erakundeak adierazi du munduko aurreikuspen ekonomikoek okerrera egin dutela energia-merkatuen turbulentziek (Irango gerra) eta presio inflazionistek eraginda, aldakortasunaren eta ziurgabetasunaren agertokia ez baita arindu.

Etkeen konfiantza eta aurrekia

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	2025	2025			2026	
		II	III	IV	I	II
Etkeen konfiantza¹ (±100)						
UE-27	-13,5	-13,6	-13,8	-12,9	-13,5	-18,3
Espainia	-2,3	-3,3	-2,7	-1,0	-2,2	-6,0
Etkeen aurrezpena²; Δ % urte artean	5,1	3,9	5,2	5,1	5,1	4,6

1. Hiruhileko datua, hileko datuen batezbestekoa, eta urteko datua, hiruhileko datuen batezbestekoa.

2. Gordailuak. Hiruhileko datua, hiruhileko bakoitzaren azken hilabetearen itxierari buruzkoa, eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona. 2026ko bigarren hiruhilekoa bat dator maiatzeko datuekin.

Europako familien konfiantzak³ okerrera egin du apur bat (-13,5etik -18,3ra); hortaz, esan daiteke ezkorra dela argi eta garbi. 2026ko lehenengo sei hilekoaren balantzeak hori bera berresten du, 2025ko eta 2024ko lehenengo sei hilekoetan (-13,8 eta -13,6) baino emaitza okerragoarekin (-15,9). Azken batean, Europako etxeetan dagoeneko nabaritzen ari da egungo esparru orokorraren aurreko nekea (barne-krisi politikoak eta nazioarteko geopolitikaren narriadura), eguneroko ingurunea gainezka egiten eta haren eragina gainditzen ari dena.

Hala ere, egoera hori okerragoa izango litzateke lan-merkatuaren emaitza positiboengatik ez balitz⁴, errenten eta familien aurrezteko gaitasunaren hobekuntza bermatu baitute. Hala, Espainian, gordailuetako saldoa⁵ indartu egin da urteko bigarren hiruhilekoan (+% 4,6) eta 1.102.397 milioi eurora iritsi da ekainaren amaieran.

Etkeen konfiantza okertu egin da

Gordailuen saldoa (familiak) bilioi bat eurotik gorako kopuruetan finkatu da

³ Kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea eraikitzeko etxeen azken eta hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa, hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomiko orokorra eta hurrengo hamabi hilabeteetako erosketari dagokiona.

⁴ EB-27ren langabezia-tasa % 6,0koa da eta Alemania (% 3,8) edo Herbehereak (% 4,0) nabarmentzen dira erabateko enpleguaren posizioetan. Balantzea ez da hain positiboa Frantziaren (% 8,1) edo Espainiaren (% 10,3) kasuan, baina, hala ere, 2008az geroztik erregistratutako minimo historikoetan daude kasu guztietan. Izatez, 2026ko lehenengo hiruhilekoan, errekor historikoa izan da 221,2 milioi langilerekin EB-27n, horietatik 176,3 milioi Euroeremuan (Eurostat, EFL).

⁵ Espainiako etxeen Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuen saldoa.

Euskal ekonomia

Ekonomia Zuzendaritzak ekainean egindako aurreikuspenean bere horretan mantendu zuen Euskadiko ekonomiaren hazkundearen aurreikuspena (% 1,9) eta hamarren bat aldatu zuen 2027koa (% 1,7). Hiruhilekoko bereizketak erakusten du hazkunde ekonomikoaren desazelerazioa izan dela pixkanaka 2026an zehar, % 2,2tik % 1,8ra jaitsi baita urte arteko tasa lehenengo hiruhilekotik laugarrenera, nazioarteko ziurgabetasunak eta Ekialde Hurbileko gatazkaren eboluzioak baldintzatuta.

Euskadiko ekonomiaren hazkundearen aurreikuspena % 1,9an mantendu da (2026)

Hazkunde hori barne-ekonomian oinarrituko da, % 2,8ko eta % 2,0ko hazkundeak kalkulatu baita 2026an eta 2027an arlo horretarako. Horrek kanpo-sektorea konpentsatuko du (-% 0,9 eta -% 0,3, 2026an eta 2027an), baina batez ere familien kontsumoaren (+% 2,6) eta kontsumo publikoaren (+% 2,7) sustapena nabarmendu behar dira, aurrerapen sendoa izango baitute inbertsioarekin batera (+% 3,3). Hala ere, profilak intentsitatea galduko du ekitaldian zehar (% 4,8tik % 2,2ra, lehenengo hiruhilekotik laugarrenera). Hazkunde-eredu hori bat dator enpleguaren dinamismoarekin (+% 1,1) eta beherantz doan langabezia-tasarekin (2026an eta 2027an % 6,5 eta % 6,2).

Emitza sektorialak heterogeneoak dira. Zerbitzuek indartu egin dute hazkundearentzako euskarri nagusi gisa duten rola, % 2,5eko eta % 1,8ko aurrerapenekin 2026an eta 2027an. Datu horiek martxoko estimazioak baino lau eta bi hamarren altuagoak dira. Aldiz, eraikuntzaren jardueraren berrikuspena beheranzkoa izan da 2026an (% 2,6tik % 1,1era), eta industriaren eta energiaren jardura ahul mantendu da (% 0,2), baina 2027an gora egitea espero da (+% 2,0). Lehen sektoreak antzeko ibilbidea jarraituko du (+% 0,2 eta +% 2,0, hurrenez hurren).

Euskal Autonomia Erkidegoa. Egoera makroekonomikoa

	2026ko martxoa		2026ko ekaina		Urte arteko aldakuntza-tasa, %			
	2026	2027	2026	2027	2026ko ekaina			
					(hiruhilekoko bereizketa)			
					I-26	II-26	III-26	IV-26
BPGd-a	1,9	1,6	1,9	1,7	2,2	2,0	1,8	1,8
Etkeen kontsumoa	2,0	1,6	2,6	1,8	2,3	2,8	2,5	2,4
Kontsumo publikoa	2,0	1,7	2,7	1,8	2,1	2,6	1,8	2,1
Inbertsioa (KEG)	3,3	2,3	3,3	2,5	4,8	3,8	2,5	2,2
Barne-ekonomiaren ekarpena	2,3	1,8	2,8	2,0	2,9	3,0	2,4	2,3
Kanpo-saldoaren ekarpena	-0,4	-0,2	-0,9	-0,3	-0,8	-1,0	-0,6	-0,6
Lehenengo Sektorea	0,8	2,2	0,2	2,0	-0,5	-0,2	0,7	0,9
Industria eta energia	0,9	1,5	0,2	2,0	0,7	-0,2	0,7	0,9
Eraikuntza	2,6	1,5	1,1	1,5	4,1	1,6	0,2	0,3
Zerbitzuak	2,1	1,6	2,5	1,8	2,6	2,5	2,2	2,2


Iturria: Eusko Jaurlaritzak Ekonomia Zuzendaritza (2025eko ekaina).

2026ko ekainean, Euskadiko ekonomiaren termometroa⁶ 99,0 puntukoa izan zen; maiatzekoa baino bi hamarren baxuagoa eta hazkunde sendoaren atalasetik hurbil. Lehenengo sei hilekoaren batezbestekoa 102,0 puntukoa da, 2025eko aldi horretan izandako 96,2ko batezbestekoaren gainetik. Hortaz, sei hilekoko balantzea oso positiboa da, nahiz eta urtarileko maximoaz geroztik (109,3) adierazlearen ibilbidea apaldu. 2026ko hirugarren

⁶ Erreferentzia-unearen egoeraren adierazlea: hazkunde irmoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta desazkundera (50etik behera).


hiruhilekorako enpresen aurreikuspenak⁷ ere hedapen eremuan mantendu dira (55,1 puntu), eta atzeraldi txiki bat izan da bigarren hiruhilekoarekin alderatuta (58,0). Esan beharra dago fakturazioaren hazkundearen, jardueraren, eskarien eta inbertsioaren gainera aurreikuspena apaldu egin dela eta enpleguaren aurreikuspenek berriz hobera egin dutela.

Euskal ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritza Ekonomia Zuzendaritza

EAEko enpresa-aurreikuspenak



Iturria: Enpresa-konfiantza. Laboral Kutxa

Euskadiko familien konfiantzak⁸ eszeptizismoaren barruan (-9 puntu) jarraitzen du eta hamazazpi hiruhileko daramatza jarraian balio negatiboetan. Ezkortasun hori ekonomia orokorraren martxaren (-26) eta familien martxaren (-11) gainera aurreikuspen negatiboen emaitza da, ezin baitira enpleguaren martxaren gainera neutraltasunarekin (-2) eta aurrezteko gaitasunarekin lotutako optimismoarekin (+4) konpentsatu.

Euskal etxeen konfiantza

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024	2025	2025				2026	
			I	II	III	IV	I	II
Etxeen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-4	-6	-4	-6	-6	-9	-8	-9

Iturria: EAEko etxeen konfiantza. Laboral Kutxa

⁷Laboral Kutxaren enpresen konfiantza-indizea 2026ko hirugarren hiruhilekorako.

⁸EAEko 800 etxetan egindako kontsulta, 2026ko maiatzaren 11tik 22ra.

Prezioak eta inflazioa

Ekainean profil inflazionista mantendu da: zehazki, KPIak urte arteko % 3,2ko hazkundearekin itxi du lehen sei hilekoa Estatuan eta EAEn, eta % 3,5ekoarekin Bizkaian. Urtean zeharreko eboluzioak erakusten du inflazioa intentsifikatu egin dela apur bat; izan ere, KPIaren hiruhilekoko batez besteko hazkundeak bigarren hiruhilekoan baino txikiagoak izan dira lehenengoan Estatuan eta EAEn (% 2,7 eta % 3,2, bi kasuetan) zein Bizkaian (% 3,0 eta % 3,5). Bizkaiak profil inflazionistagoa du, EAEko profila berriz, bat dator Estatuko batezbestekoarekin.

Bigarren hiruhilekoan % 3 inguruan finkatu da inflazioa

Inpaktu inflazionista apur bat txikiagoa da azpiko osagaian. Ekainean, % 3tik beherakoa izan da Estatuan (% 2,9) eta EAEn (% 2,8); hau da, maitzeko erregistroa baino hamarren bat baxuagoa, baina 2025eko ekaineko emaitzak baino +0,7 eta +0,1 puntu altuagoa. ElNek argitaratutako informazioaren arabera, etxebizitzak izan zuen presiorik handiena ekaineko KPIaren hazkundearen, elektrizitatearen garestitzearekin eta, hein txikiagoan, gasarenarekin batera. Garraioaren ekarpena, berriz, apaldu egin zen erregaiei eboluzioarengatik.

KPI Espainian, EAEn eta Bizkaian

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

		KPI orokorra			Azpiko KPIa ¹	
		Estatua	EAE	Bizkaia	Estatua	EAE
2025	urtarrila	2,9	3,5	3,4	2,4	2,9
	otsaila	3,0	3,3	3,1	2,2	2,4
	martxoa	2,3	2,8	2,7	2,0	2,5
	apirila	2,2	2,6	2,5	2,4	2,8
	maiatza	2,0	2,4	2,4	2,2	2,5
	ekaina	2,3	2,8	2,8	2,2	2,7
	uztaila	2,7	3,0	2,9	2,3	2,5
	abuztua	2,7	2,8	2,7	2,4	2,5
	iraila	3,0	3,3	3,2	2,4	2,6
	urria	3,1	3,2	3,3	2,5	2,5
	azaroa	3,0	3,2	3,4	2,6	2,7
	abendua	2,9	2,9	3,0	2,6	2,4
	urteko batezbestekoa	2,7	3,0	3,0	2,4	2,6
2026	urtarrila	2,3	2,3	2,6	2,6	2,6
	otsaila	2,3	2,4	2,7	2,7	2,7
	martxoa	3,4	3,4	3,7	2,9	3,0
	apirila	3,2	3,2	3,6	2,8	2,8
	maiatza	3,2	3,2	3,5	3,0	2,9
	ekaina	3,2	3,2	3,5	2,9	2,8

1. Landu gabeko elikagaririk eta produktu energetikorik gabe. Ez dago eskuragarri Bizkaian.
Iturria: EIN. 2025 oinarria

Ekaineko datuek berretsi dute inflazioaren gorakada partekatua dela Euroeremuan, nahiz eta desberdintasun handiak egon. Batez besteko inflazioa % 2,9koa da EB-27an. Herrialde bakoitzaren arabera, Espainian izan dute prezioek hazkunderik handiena (+% 3,6), eta gero Italian (+% 3,0). Frantzia, berriz, % 2ko helburuaren barruan geratu da eta Danimarka (+% 1,8) eta Suedia (+% 1,0) ez dira kopuru horretara iritsi. Azpiko inflazioa⁹ % 2,1koa da Euroeremuan, eta erregistroa bereziki altua da Espainian (+% 3,3).

⁹ElNek eta Eurostatek metodologia eta produktu-saski desberdinekin kalkulatu dute azpiko inflazioa.

Profilak apirileko eta maiatzeko azelerazioa eta ekaineko neurritasuna konbinatzen ditu: Euro Eremuaren inflazioa % 3,0tik % 3,2ra igaro zen eta gero % 2,7ra jaitsi zen. EBZk¹⁰ ekaineko ebaluazioan adierazi zuen maiatzeko hazkundea energiaren eta inflazioaren (energiarena eta elikagaiena kenduta) ondorioz izan zela, eta azpiko adierazleek hazkunde txiki bat izan zutela. Ekainean, osagarri handi guztiak apaldu ziren, baina energia (+% 8,5) eta zerbitzuak (+% 3,2) izan ziren presio-iturri nagusiak beste behin ere. Martxoarekin alderatuta, tasa orokorrak 0,2 puntuko hazkundea izan du Euroeremuan eta 0,1ekoa EB-27an. Italia da gehien nabarmendu dena (+1,4 puntu); Alemaniak, berriz, atzerakada izan du (-0,4 puntu).


EB-27ko KPI bateratua eta Europako ekonomiak. 2026ko ekaina

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	Urte arteko tasa		Diferentzia 2026ko martxoarekiko (ehuneko puntuak)	
	KPI orokorra ¹	Azpiko KPI ²	KPI orokorra	Azpiko KPIa
Eurogunea	2,7	2,1	0,2	-0,1
Alemania	2,4	2,3	-0,4	-0,1
Frantzia	2,0	1,1	0,0	-0,3
Espainia	3,6	3,3	0,2	0,4
Italia	3,0	1,5	1,4	-0,3
Herbehereak	2,5	2,3	-0,1	0,1
Danimarka	1,8	2,1	0,8	-0,5
Suedia	1,0	-0,1	0,5	-0,9
UE-27	2,9	2,4	0,1	0,0

1. HICP - KPI orokor bateratua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPI
Iturria: Eurostat

Euriborra, 12 hilabetera (%)



Iturria: Espainiako Bankua

EBZk¹¹ hau adierazi du: "energiaren prezioen aurreikuspenak oso aldakorrak izan arren, Eurosistemako adituek ekainean egindako proiektzioen erreferentziazko agertokietatik gertu daude une honetan, eta Ekialde Hurbileko gatazka hasi aurretik erregistratutako mailen gainetik, argi eta garbi. Ziurgabetasunak altua izaten jarraitzen du eta energiaren perturbazioaren inpaktu inflazionista oraindik ez da guztiz gauzatu". Testuinguru horretan, erakundeak adierazi du eskuragarri dauden datuekin interes-tasak mantendu dituela (gordailuaren erraztasuna¹², finantzazio-operazio nagusiak eta kreditu-erraztasun marjinala, % 2,25ean, % 2,40an eta % 2,65ean, hurrenez hurren).

¹⁰ EBZ (2026ko ekainak 11): Eurosistemako proiektzio makroekonomikoak, 2026ko ekaina eta 4/2026 Buletin ekonomikoa.

¹¹ EBZ, 2026ko uztailak 23.

¹² Erreferentziazko adierazlea da Euriborra zehazteko garaian.


EAEko BPGd-a

Bigarren hiruhilekoari¹³ dagozkion Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapen-datuek erakusten dute Euskadiko ekonomiak % 2,1etik % 0,5era bitarteko hazkundea izan duela urte arteko eta hiruhileko arteko tasan, hurrenez hurren. Hazkunde horiek Euskadiko ekonomiaren dinamismoa berresten dute, % 2tik gorako hazkunde-ratioak (urte arteko terminoetan) izan baitituzte 2021eko bigarren hiruhilekotik aurrera.

EAEko BPGd-a % 2,1 hazi da bigarren hiruhilekoan

Bigarren hiruhilekoko emaitza aurrerapen-datua da oraindik. Baina EUSTATEk adierazitakoaren arabera, "Aurrerapen hau egiteko unean eskura dagoen egoeraren inguruko informazio ekonomikoak adierazten du urteko bigarren hiruhileko honetan izandako hazkundearen oinarri nagusia sektoreen bilakaera positibo orokortua izan dela".

EAEko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtarakotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

Arreta finkatutako datuetan jarritz gero (lehenengo hiruhilekoa), EAEko 2026ko jardura ekonomikoa % 2,2 eta % 0,5eko hazkundearekin hasi zen urte arteko tasan eta hiruhileko arteko tasan, hurrenez hurren. Hortaz, aurreko hiruhilekoetako tartearen barruan mantendu zen eta egonkortasun-eredua berretsi zen hobekuntza-ibilbidearen barruan. Perspektiban begiratuta, hiruhileko barruko dinamismoa moteldu egin da, hiru hiruhilekok % 0,5eko hazkundea izan baitute, aurreko lau hiruhilekoetan baino hamarren bat edo bi gutxiago. Aldi berean, urte arteko hazkundea % 2tik gorakoa izan da, baina 2025eko laugarren hiruhilekoan erregistratutakoa baino bi hamarren baxuagoa. Nolanahi ere, EAEko BPGak % 2,0tik gorako hazkundea izan du hogei hiruhilekoz jarraian.

¹³ Uztailaren 17an argitaratuak. Bigarren hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak irailaren 18an argitaratuko dira.

Sektoreen arabera eboluzioak berresten du desberdintasun batzuk daudela; bi sektorek hobera egin baitute lehenengo hiruhilekoan eta beste bik okerrera. Zerbitzuek indartu egin dute beren hobetzeko gaitasuna, % 2,9ko urte arteko hazkundearekin, eta 2025eko lau hiruhilekoetan erregistratutako tartearen barruan mantendu dira. Bestalde, eraikuntza apaldu egin da (+% 2,5) eta 2025ekoa baino hazkunde askoz ere txikiagoa izan du. Azkenik, industriaren eta energiaren agregatua negatiboan kokatu da (urte arteko -% 0,3ko hazkunde) eta lehen sektorearen jarduerak ere behera egin du 2025eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta (-% 0,7).

Zerbitzuek EAEko hazkunde ekonomikoa sustatu dute industriaren ahuleziaren aurrean.

Dinamismo ekonomiko hori oso agerikoa da enpleguaren emaitzetan. 2026ko lehenengo hiruhilekoan, lanaldi osoko baliokideak (LOB) diren 1.006.711 lanpostu kontabilizatu dira: zifra historikoa da hori, ez baitzen halako zifrarik erregistratu aldez aurretik. Urte arteko tasaren % 1,3ko hazkundeak eta hiruhileko arteko tasaren % 0,2koak eragin dute hazkunde hori (+12.434 eta +2.497 lanpostu kasu bakoitzean).

Lehenengo aldiz, LOBen milioi bat lanpostu baino gehiago izan dira

Zerbitzuen sektorearen joera onak eragin du enpleguaren hobekuntza, % 1,7ko urte arteko hazkunde izan baitu eta duela urtebete baino 12.133 lanpostu gehiago sortu baititu. Euskadiko ekonomian sortutako enplegu garbi ia guztia da hori. Eraikuntzak ere hobera egin du (+% 1,2: 712 enplegu); aldiz, industriak beherakada txikia izan du (-% 0,2: 387 lanpostu gutxiago), eta 2021 hasieratik izandako urte arteko lehenengo enplegu galera izan da. Hortaz, Euskadiko lan-merkatua indartsu dagoela berretsi da, baina baita hirugarren sektorearekiko mendekotasuna duela ere, guztizko enpleguaren hiru laurden sektore horrek sortzen baititu.

EAEko BPGd-a, sektoreen arabera

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %						
	2024	2025	I	II	2025 III	IV	2026 I
BPGd-a	2,5	2,3	2,1	2,2	2,3	2,4	2,2
Lehenengo Sektorea	4,3	-0,6	0,6	-0,4	-1,5	-1,2	-0,7
Industria eta energia	2,0	0,4	0,4	0,1	0,2	0,9	-0,3
Eraikuntza	2,0	3,7	1,7	3,1	5,1	4,9	2,5
Zerbitzuak	2,9	2,8	2,7	2,8	2,9	2,8	2,9
LOB enplegua	1,5	1,4	1,5	1,4	1,4	1,4	1,3

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtaro- eta egutegi-ondorioei buruzko datu zuzenduak BPGd-a bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2022ko oinarrian.

LAN-MERKATUA

Afiliazioa


2026ko bigarren hiruhilekoan 200.042 afiliatu izan ziren Bilbon, martxoan baino % 0,2 gehiago (412 afiliatu gehiago), eta maiatzean erregistratu zen serieko balio maximoa (202.819 afiliazio). Zifra horrek urte arteko % 1,4ko hazkundea islatzen du, hau da, 2025eko ekainean baino 2.739 afiliazio gehiago izan dira, eta hiriak enplegua sortzen jarraitzen du.

Bilbon (ekainean)
200.042 afiliazio izan dira
(+ % 1,4, urtetik urterako
tasan)

Lehenengo sei hilekoko afiliazioaren balantzea (hilabeteko batezbestekoa) 200.407 afiliatotara iritsi da; beraz, hazkunde handia izan da 2025eko lehenengo sei hilekoarekin alderatuta (198.322; + % 1,1), 2.085 afiliazio gehiagorekin. Gainera, 2026ko lehenengo sei hilabetetatik lautan 200.000 afiliazioaren atalasea gainditu da, ekitaldiz ekitaldi hazten ari den enpleguaren mailaren egonkortasuna berretsiz.

Seihilekoko balantzeak
enpleguaren hazkundea
berretsi du (+ % 1,1eko
urte arteko hazkundea)

Afiliazioa



Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Hazkunde orokorra izan da erregimenen arabera, bai hiruhilekoen arteko eboluzioari, bai urteen artekoari dagokionez. Erregimen Orokorrean dago Bilboko afiliazioaren % 85,4 eta 170.907 afiliatu ditu guztira. Erregimen horrek hazkunde txikia izan du hiruhilekoen artean (+ % 0,1 martxoarekin alderatuta), baina hazkunde handiagoa aurreko urtearekin alderatuta (+ % 1,4). Hortaz, rol gakoa izaten jarraitzen du, hiriko afiliazio osoaren hazkundearen zatirik handiena erregimen horren eraginez izan baita (urte artean irabazitako 2.761 afiliatizatik 2.360).

Afiliazioaren hazkunde
orokorra erregimen
guztietan

Halaber, Langile Autonomoen Erregimen Bereziak (22.040 afiliazio; + % 0,3ko hiruhileko arteko hazkundea eta + % 0,4ko urte artekoa) eta Etxeko Langileen Sistema Bereziak ere bilakaera positiboa izan dute (6.383; + % 3,3 eta + % 4,2, hurrenez hurren). Beste erregimenek hiruhilekoen arteko hazkunde are handiagoa izan dute (+ % 6,9), baina pisu oso txikia dute.

Egitura egonkor mantendu da: enplegu autonomoak % 11,0ko pisua du enplegu guztiaren gainean, etxeko langileen enpleguak % 3,2koa eta beste erregimenek % 0,4koa.

Afiliazioa, araubideen arabera

	03.2026	06.2026	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko martxoarekiko)	Urte arteko Δ % (2025eko ekainarekiko)
GUZTIRA	197.303	200.042	0,2	1,4
Araubide orokorra	168.506	170.907	0,1	1,4
Autonomoak	21.961	22.040	0,3	0,4
Etxeko langileak	6.127	6.383	3,3	4,2
Bestelakoak	709	712	6,9	0,4

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Afiliatuak, jarduera-adarren arabera

	06.2025	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko martxoarekiko)	Banaketa %
Lehenengo Sektorea	330	9,6	0,2
Industria eta Energia	8.591	4,1	4,3
Industria	4.737	2,6	2,4
Energia	1.152	2,2	0,6
Hondakinak eta ura	2.702	7,8	1,4
Eraikuntza	9.562	2,6	4,8
Eraikuntza	2.892	3,2	1,4
Eraikuntza-laguntzailea	6.670	2,3	3,3
Zerbitzuak	181.540	-0,1	90,8
Merkataritza	19.646	1,9	9,8
Garraioa eta biltegiatzea	10.258	-0,2	5,1
Ostalaritza	11.053	-4,1	5,5
Ostatua	2.093	8,9	1,0
Informazioa eta komunikazioak	10.972	-0,8	5,5
Finantzak eta aseguruak	7.914	0,2	4,0
Higiezin jarduerak	1.680	2,8	0,8
Jarduera profesional, zientifikoak eta teknikoak	15.737	0,2	7,9
Administraziokoak eta laguntza zerbitzuetakoak	18.814	0,9	9,4
Administrazio publikoa	12.290	-0,9	6,1
Hezkuntza	25.872	-4,5	12,9
Osasuna	16.238	6,6	8,1
Gizarte-zerbitzuak	10.327	0,2	5,2
Aisialdikoak eta kulturalak	4.294	-10,4	2,1
Etxeko langileak	6.813	3,2	3,4
Beste zerbitzu batzuk	7.539	2,2	3,8

Oharra: Kopuru osora arteko aldea sektore-esleipena zehaztu gabe duten afiliazioei dagokie.

Ezin da urte arteko balantzea egin (atxikipen sektoriala CNAE-09tik CNAE-25ra aldatu da)

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Afiliazioaren hiruhileko arteko hazkundera industriaren eta energiaren (+% 4,1), eraikuntzaren (+% 2,6) eta lehen sektorearen (+% 9,6) dinamismoaren emaitza izan da, zerbitzuek izandako atzeraldia (-% 0,1) konpentsatu baitute. Zerbitzuen jarduera-adarraren arabera eboluzioak joera desberdina izan du; hazkunderik handienak ostatuan (+% 8,9), osasunean (+% 6,6), etxeko langileetan (+% 3,2), higiezinaren jardueran (+% 2,8) eta beste zerbitzu batzuetan (% 2,2) erregistratu dira. Kontrara, aisialdiko eta kulturako jarduerak (-% 10,4), hezkuntzak (-% 4,5) eta ostalaritzak (-% 4,1) kontzentratu dituzte beherakadarik handienak. Halaber, hein txikiagoan, baina atzera egin dute Administrazio Publikoak (-% 0,9), informazioak eta komunikazioak (-% 0,8) eta garraioak eta biltegiak (-% 0,2).

Zerbitzuetako hiruhilekoen arteko atzerakada (urtarokoa)

Enpleguaren banaketa mantendu egin da: zerbitzuek afiliazioaren % 90,8 kontzentratzen dute, eraikuntzaren (% 4,8), industriaren eta energiaren (% 4,3) eta lehen sektorearen (% 0,2) aurretik, pisu oso txikia baitu hirian sortutako enpleguaren egitura.

Benchmarkinga. Afiliazioa

	06,2025	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko martxoarekiko)	Urte arteko Δ % (2025eko ekainarekiko)
Madril	2.474.324	0,6	3,4
Bartzelona	1.272.677	1,2	2,1
Valentzia	491.780	1,0	4,6
Sevilla	423.176	-0,5	2,3
Zaragoza	330.929	-0,1	2,7
G-5en batezbestekoa	--	0,4	3,0
BILBO	200.042	0,2	1,4
Gasteiz	133.019	0,9	3,0
Donostia	129.768	1,0	1,8
Iruñea	121.530	0,5	3,0
G-3ren batezbestekoa	--	0,8	2,6
G-9ren batezbestekoa	--	0,5	2,7

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo. Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Erreferentziatzko hiriburuaren afiliazioaren eboluzioaren azterketa positiboa da oro har. Bartzelonako (+% 1,2), Valentziako (% 1,0) eta Madrilgo (+% 0,6) enplegu-zifrek hobera egin dute martxoarekin alderatuta (hiruhilekoen arteko balantzea), eta, aldiz, atzerakada txikia izan da Sevillan (-% 0,5) zein Zaragozan (-% 0,1). Oro har, hiriburuaren talde horrek (G-5) % 0,4ko batez besteko hazkundera izan du afiliazioan. Euskadiko hiriburuaren kasuan, eboluzio egokia izan dute guztiek, % 0,8ko urte arteko hazkundera izan baitute guztira (G-3).

Erreferentziatzko hiriburu guztiek hobetu dute enplegua

Enpleguaren eboluzioaren profil positiboa argi eta garbi berretsi da urte arteko terminoetan; izan ere, erreferentziatzko hiriburu guztietan egin du gora afiliatutako pertsonen kopuruak 2025arekin alderatuta, batik bat Valentzian (+% 4,6) eta Madrilan (+% 3,4), estatuko hiriburu guztien batez besteko balioa gailendu baitute (G-5; +% 3,0). Emaitza positibo hori G-3 osora zabaltzeko (+% 2,6 Euskadiko hiriburuentzat eta Iruñearentzat), Gasteizek eta Iruñeak erregistratutako hazkundeak (+% 3,0) bultzatuta.

Kontratuak

2026ko bigarren hiruhilekoan, 32.906 kontratu berri erregistratu dira Bilbon bizi diren pertsonen artean. Aurreko hiruhilekoan baino 6.384 kontratu gehiago dira. Hortaz, horrek esan nahi du hiruhileko arteko hazkundera (+% 24,1) eta urte artekoa (+% 15,4) garrantzitsuak izan direla.

Lan-kontratu berriek hiruhileko arteko (+% 24,1) eta urte arteko (+% 15,4) dinamismo handia izan dute.

Hiruhileko arteko hazkundera bi sexuetan izan da, baina gizonen kontratazioak (+% 28,2) emakumeenak baino hazkunde handiagoa izan du (+% 20,2). Adin-tarteari dagokionez, bultzadarik handiena gazteen kolektiboak izan du, 16 eta 24 urte bitartekoak (+% 58,2) zein 25 eta 34 urte bitartekoak (+% 21,6), eta hazkundera neurritsuagoa izan da 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen (+% 11,8) eta 45 urte eta gehiagokoak artean (+% 7,6). Horrez gain, nabarmentzekoa da zerbitzuen (+% 25,1), industriaren eta energiaren (+% 19,9) eta eraikuntzaren (+% 18,9) dinamismoa. Urte arteko alderaketak balantze positibo hori berresten du: gizonen (+% 18,4) zein emakumeen (+% 12,5) kontratazioek gora egin dute, adin talde guztiek hobera egin dute duela urtebeteko zifrekin alderatuta eta, sektoreari dagokionez, zerbitzuen sektorearen hazkundera nabarmentzen da (+% 16,7).

Hobekuntza izan da bi modalitateetan, baina hazkundera handiagoa izan da aldi baterako kontratuetan (+% 26,2) kontratu mugagabeetan baino (+% 19,4). Urte arteko terminoetan berriz, kontratu mugagabeak izan dira dinamismorik handiena izan dutenak (+% 25,8) aldi baterakoekin konparatuta (+% 11,4). Kontratu mugagabeak guztizkoaren % 30,0 izan dira eta indarra hartu dute duela urtebeteko datuekin alderatuta (% 27,5).

Lehenengo seiuhilekoan 59.428 kontratu egin dira, 2025eko aldi horretan baino % 9,5 gehiago (+5.133 kontratu). Hazkundera gizonen zein emakumeen artean izan da, baina apur bat handiagoa izan da gizonen artean (+% 11,7; +3.051) emakumeen artean baino (+% 7,4; +2.082). Adin talde guztiek hobetu dute kontratu berrien bolumena, batez ere 16 eta 24 urte bitarteko gazteen taldeak (+% 13,6; +1.871). Kontratu mugagabeak % 16,9ko hazkundera izan dute (+2.617); hots, aldi baterako kontratuak baino handiagoa (+% 6,5; +2.516). Azkenik, zerbitzuak kontzentratzen dute hazkunderik handiena (+% 10,2; +4.777), eta, ondoren, eraikuntzak (+% 8,8) eta industriak eta energiak (+% 4,1). Horiei esker konpentsatzen da lehen sektorearen atzerakada (-% 1,6; -12).

Kontratuak

	I.2026	II.2026	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko I. hiruhilekoarekiko)	Δ % urte artean (2025eko II. hiruhilekoarekiko)	2026ko I. seihilekoa Δ % urte artean	Zk.
GUZTIRA	26.522	32.906	24,1	15,4	9,5	5.133
Emakumeak	13.721	16.491	20,2	12,5	7,4	2.082
Gizonak	12.801	16.415	28,2	18,4	11,7	3.051
16-24 urte bitartekoak	6.051	9.575	58,2	19,1	13,6	1.871
25-34 urte bitartekoak	7.784	9.465	21,6	16,2	8,4	1.338
35-44 urte bitartekoak	5.191	5.804	11,8	11,1	6,5	672
45 urte eta gehiagokoak	7.496	8.062	7,6	13,3	8,8	1.252
Mugagabeak	8.260	9.866	19,4	25,8	16,9	2.617
Aldi baterako kontratuak	18.262	23.040	26,2	11,4	6,5	2.516
Lehenengo Sektorea	378	365	-3,4	-3,7	-1,6	-12
Industria eta energia	2.039	2.445	19,9	6,4	4,1	176
Eraikuntza	1.102	1.310	18,9	11,8	8,8	196
Zerbitzuak	23.003	28.786	25,1	16,7	10,2	4.777

Bilbon bizi den pertsonen erregistratutako kontratazio berriak.
Iturria: Lanbide

Erregistratutako langabezia


Bilbok 20.458 langabe zituen 2026ko ekainean, eta beherakada nabarmena izan zuen hiruhilekoaren barruan (-% 2,6; martxoan baino 549 pertsona gutxiago). 2025eko ekaineko zifra ia berbera (20.443) izan zen ekainekoa. Emaiza oso positiboa da hori, 2009az (20.437) geroztik ekainean erregistratutako langabezia-tasarik onenetako bat baita.

Erregistratutako langabezia gutxiengo historikoetan

Hiruhilekoko beherakada gizonen zein emakumeen artean izan da, baina apur bat handiagoa izan da gizonen artean (-% 2,9) emakumeen artean baino (-% 2,4). Horrez gain, adin-tarte guztietan egin du behera, batez ere talderik gazteenean (-% 8,7). Hala ere, urte arteko terminoetan, gizonen langabeziak behera egin du (-% 0,4) eta emakumeenak berriz gora (+% 0,5), baina oso modu neurritsuan bi kasuetan. Adinari dagokionez, 35 eta 44 urte bitarteko taldean soilik egin du behera langabeziak (-% 3,0), eta, kontrara, gora egin du kolektiborik gazteenaren artean (+% 2,6).

Erregistroan daramaten denboraren arabera langabeziaren eboluzioak berresten du langabeziak adin talde guztietan egin duela behera hiruhileko batetik bestera, egoera horretan 1 eta 2 urte artean daramaten pertsonen artean izan ezik. Izan ere, talde hori izan da hazkundera izan duen bakarra (+% 0,7) eta murrizketarik txikiena 6 hilabetera arte daramaten pertsonen taldean izan da (-% 5,8). Urte arteko terminoetan, 2 eta 3 urte bitarteko kolektiboaren beherakada (-% 6,0) nabarmendu behar da. Langabezian 6 hilabete baino gutxiago daramaten pertsonen taldeak, berriz, gora egin du (+% 3,1). Azkenik, gora egin du prestazioa kobratzen duten pertsonen kolektiboak (+% 7,6 eta +% 4,6 hiruhileko arteko eta urte arteko tasan), eta behera egin du prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen taldeak (-% 5,8 eta -% 1,5 hiruhileko arteko eta urte arteko tasan).

Erregistratutako langabezia



Iturria: SEPE eta Lanbide

Erregistratutako langabezia

	06.2026	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko martxoarekiko)	Urte arteko Δ % (2025eko ekainarekiko)
GUZTIRA	20.458	-2,6	0,1
Emakumeak	11.688	-2,4	0,5
Gizonak	8.770	-2,9	-0,4
16-24 urte bitartekoak	1.816	-8,7	2,6
25-34 urte bitartekoak	3.315	-2,6	0,9
35-44 urte bitartekoak	3.771	-3,1	-3,0
45 urte eta gehiagokoak	11.556	-1,4	0,5
6 hilabetera arte	6.620	-5,8	3,1
6 hilabete eta 1 urte bitartean	2.947	-2,0	-1,2
Urte 1 eta 2 urte bitartean	3.040	0,7	-0,1
2 eta 3 urte bitartean	1.697	-1,5	-6,0
3 urte baino gehiago	6.154	-1,2	-0,5
Langabezia-prestazioa kobratzen du	5.405	7,6	4,6
Ez du langabezia-prestaziorik kobratzen	15.053	-5,8	-1,5

Iturria: SEPE eta Lanbide

G-5ean erregistratutako langabeziaren eboluzioan beheranzko profila hautematen da urte batetik bestera, batik bat Sevillan (-% 8,4) eta Valentzian (-% 3,1). Beherakada hori neurritsuagoa izan da Madrilan (-% 1,7) eta Bartzelonan (-% 0,5), eta langabeziak gora egin du apur bat Zaragozan (-% 0,4). Hortaz, hiriburuen talde horretan (G-5) erregistratutako batez besteko langabezia-tasak behera egin du berriro ere urte batetik bestera (-% 2,7). G-3 hiriburuei dagokienez, Gasteiz da langabezia-tasa murriztu duen bakarra (-% 3,6). Donostian (+% 1,2) eta Iruñean (+% 0,2), berriz, langabetuen kopuruak gora egin du. Ondorioz, urteko bigarren hiruhilekoan G-3 hiriburuek beherakada berri bat erregistratu dute langabezian (-% 0,7).

Benchmarkinga. Erregistratutako langabezia

	06.2026	Hiruhileko arteko Δ % (2026ko martxoarekiko)	Urte arteko Δ % (2025eko ekainarekiko)
Madril	129.327	-4,5	-1,7
Bartzelona	61.175	-5,3	-0,5
Valentzia	41.172	-0,4	-3,1
Sevilla	49.130	-5,5	-8,4
Zaragoza	27.783	-4,2	0,4
G-5en batezbestekoa	--	-4,0	-2,7
BILBO	20.458	-2,6	0,1
Gasteiz	13.469	-5,1	-3,6
Donostia	6.311	-3,3	1,2
Iruñea	9.407	-3,4	0,2
G-3ren batezbestekoa	--	-3,9	-0,7
G-9ren batezbestekoa	--	-3,8	-1,7

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.


Iturria: SEPE

Biztanleria aktiboa

2026ko bigarren hiruhilekoari dagokion BAiren datuen azken eguneraketaren arabera, Bilbok 173,3 mila pertsonako biztanleria aktiboa du. Horrek esan nahi du nabarmen jaitsi dela kopuru hori hiruhileko batetik zein urte batetik bestera (-% 2,1 eta -% 9,2, hurrenez hurren). Beherakada hori biztanleria okupatuaren kolektiboan islatzen da, beheranzko joera hori partekatzen baitu (-% 3,7 eta -% 11,4, hiruhileko arteko eta urte arteko terminoetan), baina ez ordea biztanleria langabeen (+% 17,3 eta +% 20,9, hurrenez hurren).

Jarduera-sektorearen arabera, enpleguaren galera izan da urte batetik bestera bai eraikuntzaren sektorean (-% 44,0), bai zerbitzuenean (-% 14,7). Industriak, berriz, hazkundea izan du (+% 53,1), baina ez da nahikoa gainerako beherakadak konpentsatzeko. Biztanleriaren langabezia-tasak ere gora egin du % 9,0ra iritsi arte, eta emakumeen artean baxuagoa (% 8,14) izan da gizonen artean baino (% 9,79).

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea



Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea eta adierazleak (enplegu- eta langabezia-tasa)

	III.2025	IV.2025	I.2026	II.2026	Δ %	
					Hiruhileko artekoa	Urte artean
Biztanleria aktiboa (milaka)	175,8	178,1	177,0	173,3	-2,1	-9,2
Biztanleria okupatua (milaka)	164,6	156,6	163,8	157,7	-3,7	-11,4
Nekazaritza	--	--	--	--	--	--
Industria	17,2	20,7	22,5	22,2	-1,3	53,1
Eraikuntza	8,2	7,6	7,4	7,5	1,4	-44,0
Zerbitzuak	139,3	128,2	133,9	128,0	-4,4	-14,7
Biztanleria langabetua (milaka)	11,2	21,5	13,3	15,6	17,3	20,9
Enplegu-tasa (%)	54,69	51,94	53,30	51,03	-2,3	-5,5
Emakumeak	50,75	48,78	49,05	55,52	6,5	1,1
Gizonak	59,11	55,33	57,83	46,80	-11,0	-12,0
Langabezia-tasa (%)	6,36	12,08	7,49	9,02	1,5	2,3
Emakumeak	9,32	9,82	9,04	8,14	-0,9	2,3
Gizonak	3,32	14,13	6,04	9,79	3,8	2,2

Enplegu-tasarako eta langabezia-tasarako aldakuntza-tasa ehuneko puntuetan.

Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

MERKATARITZA

¹⁴2026ko lehenengo hiruhilekoa datu oso positiboekin itxi da merkataritzaren salmenten kasuan (+% 2,2ko urte arteko tasa prezio arruntetan), eta azken hiruhilekoetako emaitzarik onena izan da. Azpisektore guztiek egin diote ekarpena hazkunde horri, txikizkako merkataritzak aurreko hiruhilekoko erritmo berean hobetu baititu bere salmentak (+% 3,6), elikagaien adarrak sustatuta batik bat (+% 5,2), handizkako segmentuak hobekuntza-joerari eutsi baitio (+% 1,9) eta ibilgailuen salmentak eta konponketak aurreko hiruhilekoan (+% 4,5) baino hazkunde askoz ere handiagoa izan baitu (+% 8,5).

Merkataritzako salmentek urte arteko hazkunde garrantzitsuarekin (+% 3,2) hasi dute urtea

Balantzea positiboa izan da prezio konstanteetan ere (+% 2,2), eta, gainera, segmentu guztiek partekatu dute hobekuntza hori. Ibilgailuen salmenta eta konponketa izan da eboluziorik onena izan duena (+% 6,9), eta gero txikizkako merkataritza (+% 2,2) eta handizkako jarduera, aurreko hiruhilekoetan ez bezala, saldo positiboa izan baitu (+% 1,3). Azpisegmentuei dagokienez, emaitzak lauagoak dira: elikagaiak % 2,4ko hazkundea izan dute eta gainerako produktuek % 1,9koa.

Balantze positiboa osagarri guztietara zabaldu da, inflazioaren efektua kenduta

Aurrekoaren ildotik, 2026ko lehenengo hiruhilekoan gora egin du enplegu sektorialak (+% 1,3) eta 2025eko bigarren eta laugarren hiruhilekoen artean erregistratutako hazkundea (+% 1,4, +% 2,0 eta +% 1,4, urte arteko tasan) finkatu egin da. Hala, 2025eko lehenengo hiruhilekoan (-% 0,4) etendako hobekuntza-joera berreskuratu du merkataritzaren sektoreak eta lau hiruhileko daramatza jarraian urte arteko enpleguaren hazkundearekin.

Enplegu sektorialak hobekuntza-profila mantendu du (+% 1,3)

Merkataritza

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	III.2025	IV.2025	I.2026	III.2025	IV.2025	I.2026
Merkataritza-salmentak guztira	3,1	1,9	3,2	2,2	0,0	2,2
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	18,2	4,5	8,5	15,9	3,0	6,9
Handizkako merkataritza	-0,1	0,3	1,9	-0,7	-2,2	1,3
Txikizkako merkataritza *	4,6	3,6	3,6	3,5	2,5	2,2
Elikadura	4,7	3,8	5,2	3,7	2,9	2,4
Gainerako produktuak	4,5	3,4	1,7	3,2	2,4	1,9
Landunen indizea	2,0	1,4	1,3	--	--	--

*Indize orokorra, zerbitzugunerik gabe Bizkaiko datuak, egutegi ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. 2021eko oinarria.
Iturria: Eustat

2026ko bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentek hazkundea izan dute prezio arruntetan (+% 3,1), baina ez konstanteetan (-% 0,1). Elikagaien segmentuak hobekuntza-ibilbidea mantendu du, eta urteko bigarren hiruhilekoan finkatu egin da, bai prezio arruntei dagokienez (+% 4,4), bai prezio konstanteei dagokienez (+% 0,9) baina hein txikiagoan. Aldiz, elikagaiena ez den segmentuak bultzada izan duen arren prezio arruntetan (+% 0,7), prezio konstanteak negatiboan mantendu dira bigarren hiruhilekoz jarraian (-% 2,3 eta -% 1,7). Enpleguaren kasuan ere, beherakada izan da bi hiruhilekoz jarraian (-% 0,3 eta -% 0,2).

Gora egin dute Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentek prezio arruntetan kasuan (+% 3,1)

¹⁴Aurreko 8 hiruhilekoetako datuak hobetu dira hein txiki edo handiagoan.

Merkataritzagune handiak

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	IV.25	I.26	II.26	IV.25	I.26	II.26
Salmentak	4,7	3,1	3,1	1,8	0,0	-0,1
Elikadura	4,9	5,5	4,4	1,2	1,3	0,9
Gainerako produktuak	4,2	-1,4	0,7	2,7	-2,3	-1,7
Landunen indizea	0,2	-0,3	-0,2	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. 2021eko oinarria. Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak
Iturria: Eustat

2026ko hirugarren hiruhilekoan 4.290 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian. Zifra hori egonkorra da urte arteko datuei dagokienez (+% 0,0; -1 ibilgailu), baina hiruhilekoko saldoa hobetu egin da (+% 17,0; +622 unitate). Norbanakoen merkatuak mugitzen du matrikulazioen zatirik handiena (% 73,4) eta sustatu du hazkundera (+% 26,3), enpresen eta bestelakoen matrikulazioek atzerakada izan baitute (-% 2,8 eta -% 12,4, hiruhileko eta urte arteko tasaren kasuan).

Ibilgailu berrien matrikulazioak egonkortu egin dira Bizkaian (+% 0,0, urte arteko tasa) bigarren hiruhilekoan

Lehenengo seihilekoko balantzearen arabera, 7.958 ibilgailu matrikulatu dira Bizkaian, eta urte arteko emaitza positiboa izan da (+% 3,5; +272 unitate), norbanakoen segmentuak bultzatuta (+% 5,3 eta +286 unitate). Horrek enpresen segmentuaren atzerakada konpentsatu du (-% 0,6; -14 unitate). Lurraldeko ibilgailu berrien matrikulazioek ibilbide oso positiboa izango dutela dirudi, 2023ko eta 2024ko lehenengo seihilekoetan erregistratutako jarduera-bolumenak (6.653 eta 6.691 unitate) hobetu baitira, baina pandemia aurreko zifrak baino baxuagoak dira oraindik ere (11.162 eta 10.726 unitate, 2018an eta 2019an).

...eta seihilekoko balantzea positiboa izan da (+% 3,5)

Garrantzitsua da nabarmentzea 2025eko abendura arte Eusko Jaurlaritzak indarrean mantendu zuela isurpenik gabeko mugikortasuna sustatzeko EEEren "Isurpen Gutxiagoko Ibilgailuak" programa, Europako itun Berdeak agintzen duen moduan. 2026an, oraingoz, dirulaguntza zuzen bat soilik lor daiteke estatuko Plan Auto+¹⁵ dirulaguntzen programaren bitartez. Programa horrek ibilgailu elektrifikatuak, ekonomikoak eta Europakoak erosten laguntzen du. Horrez gain, Bizkaia kenkari fiskalak ditu, bai ingurumena errespetatzen duten ibilgailu berriak erosteko, bai kargatzeko puntuak instalatzeko, eta horrez gain, hobariak eskaintzen ditu zirkulazioaren udal-tasan.

Ibilgailuen matrikulazioa

	III.2025	IV.2025	I.2026	II.2026		
				Zk.	Hiruhileko arteko Δ %	Δ % urte artean
Guztira	3.895	4.119	3.668	4.290	17,0	-0,0
Partikularrak	2.860	2.957	2.495	3.150	26,3	5,4
Enpresak eta bestelakoak	1.035	1.162	1.173	1.140	-2,8	-12,4

Bizkaiko datuak.
Iturria: Anfac

¹⁵Programaren oinarriak argitaratu berri dira: 2026ko uztailaren 22ko 609/2026 Errege Dekretua, ibilgailu elektrikoak eta elektrifikazioak erosteko dirulaguntza zuzenen esleipenari buruzkoa. Hala ere, plataforma tekniko baten bitartez aurkeztu daitezkeen eskaerak atzeraeraginezko izaera izango dute.

2026ko ekainean, Bilboko merkataritza-sektorearekin lotutako afiliazioa¹⁶ 19.646 afiliatura iritsi da, martxoko itxiera-datuarekin alderatuta % 1,9ko hazkundea erregistratu ostean (622 pertsona gehiago). Hala ere, urtetik urtera errepikatzen den hobekuntza-eredu ebolutiboa da, urteko lehen hiruhilekoaren gainean zenbatzen delako eta afiliazio-daturik okerrenak izaten dituelako.

Hiriko merkataritza-sektorearen afiliazioa 20.000 pertsona ingurukoa da

Txikizkako merkataritzak betetzen du afiliazioaren zatirik handiena (15.397 afiliazio), eta, era berean, sektore osoaren eboluzioa zehazten du. Hala, txikizkako merkataritzari atxikitako afiliazioak gora egin ostean (+% 3,1), handizkako jarduerak atzerakada izan du (-% 1,9).

Merkataritza-sektorearen adierazleak. Bilbo

	03.2026	06.2026	Δ %	
			hiruhileko artekoa	urte artean
Afiliatuak¹	19.272	19.646	1,9	--
Handizkako merkataritza	4.333	4.249	-1,9	--
Txikizkako merkataritza	14.939	15.397	3,1	--
Enpresak²	2.204	2.196	-0,4	--
Handizkako merkataritza	585	574	-1,9	--
Txikizkako merkataritza	1.619	1.622	0,2	--
Soldatapeko batez besteko enplegua³	6,6	6,8	--	--
Enplegu autonomoaren %	24,4	23,9	--	--

1. Guztizko enplegua (araubide guztiak). 2. Kotizazio-kontuak, araubide orokorreko afiliatutakoak, kotizazio-kontuen guztizkoari dagokionez.

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.. GSDO

Azkenik, 2026ko ekainean, 2.196 establezimenduk osatzen zuten hiriko merkataritza, martxoan baino 8 gutxiagok. Afiliazioan aipatutakoaren ildotik, txikizkako merkataritza da jokaerarik onena izan duena, bere enpresa-ehundura indartzen jarraitzen baitu (+3 enpresa); handizkako jarduerak berriz, presentzia galdu du hirian (-11 enpresa).

Bilbok merkataritza-sektoreko enpresak galdu ditu handizkako jarduerak izandako galeren ondorioz

Horrenbestez, hiriko merkataritza-ehundurak txikizkako merkataritzan oinarrituta jarraitzen du, 1.622 enpresa baitaude, eta handizkakoan berriz 574. Halaber, enpresen batez besteko tamainak hazkunde txiki bat izan du, 2026ko martxoan soldatapeko 6,6 pertsona edukitzetik 2026ko ekainean 6,8 izatera igaro baita.

¹⁶ Jarduera ekonomikoen sailkapenean izandako azken aldaketa baten ondorioz (CNAE-09tik CNAE-25era), ezin da alderaketa zabalagorik egin, sekzioak ez baitatortzen.

TURISMOA

2026ko bigarren hiruhilekoan, hiriko hotel establezimenduek 345.524 bidaiari eta 662.269 ostatu-gau erregistratu zituzten, eta urte arteko hazkundeak antzekoa izan zen (+% 2,5 eta +% 2,4, hurrenez hurren). Nazioarteko bidaiarien dinamismoaren (+% 5,4) eragina dira emaitza horiek, talde horren hazkundeak estatuko bidaiarien beherakada (-% 1,5) konpentsatu baitu. Emaita berbera izan da ostatu-gauetan (+% 6,2 eta -% 4,0, hurrenez hurren). Hala, nazioarteko osagaiak bidaiarien % 60,4 eta ostatu-gauen % 65,3 hartzen ditu, eta 2,07 eguneko batez besteko egonaldia egin dute, estatuko segmentuak baino zertxobait gehiago (1,68 egun). Hiruhilekoko balantze horren arabera, hotel establezimenduen urte arteko dinamismoa handiagoa izan da hiru izar bitarteko hoteletan (+% 7,9) hiru izar eta gehiagokoetan baino (+% 0,5). Hala ere, azken multzo horretakoak dira ostatu-gauen % 72,6.

Bigarren hiruhilekoa: hazi egin da bidaiarien eta ostatu-gauen kopurua (+% 2,5 eta +% 2,4 urte arteko tasan)

Seihilekoko balantzea ere positiboa izan da, % 2 inguruko urte arteko irabaziarekin bidaiarien eta ostatu-gauen kasuan (+% 2,1 eta +% 2,2), eta, hala, 2024ko lehenengo seihilekoko emaitza apurtu da, galera txiki bat izan baitzen urte arteko datuetan bi aldagaien kasuan (-% 0,5 eta -% 1,4, hurrenez hurren). Hazkunde nazioarteko segmentuan izan da (+% 6,3 eta +% 6,9), ez ordea estatuko segmentuan (-% 2,1 eta -% 3,5), bidaiarien eta ostatu-gauen terminoetan. Hala, jardueraren erdia baino gehiago nazioarteko osagarriarengatik izan da (% 52,2 eta % 57,4 bidaiarien eta ostatu-gauen kasuan). Seihilekoko balantze positibo hori 3 izarretik beherako hoteletan eta pentsioetan erregistratutako ostatu-gauetan soilik izan da (+% 11,8), 3 izar eta gehiagoko establezimenduek (-% 1,0) beherakada txikia izan baitute. Hala ere, hiriko hotelen jardueraren zatirik handiena hartzen dute (ostatu-gauen % 72,3).

Bilbok milioi bat ostatu-gau baino gehiago erregistratu ditu (bigarren aldiz) urteko lehenengo seihilekoan

Lau ostatu-gauetatik hiru 3 izar eta gehiagoko establezimenduetan

Turismoa

	I.2026	II.2026	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artean.	2026ko I. seihilekoa	Δ % urte artean
Ostatu-gauak	446.192	662.269	48,4	2,4	1.108.461	2,2
3 izar eta gehiagoko hotelak	320.693	481.148	50,0	0,5	801.841	-1,0
3 izar baino gutxiagoko hotelak eta ostatuak	125.499	181.121	44,3	7,9	306.620	11,8
Estatukoak	242.457	230.033	-5,1	-4,0	472.490	-3,5
Atzeritarrak	203.735	432.236	112,2	6,2	635.971	6,9
Bidaiariak	240.938	345.524	43,4	2,5	586.462	2,1
Estatukoak	143.658	136.942	-4,7	-1,5	280.600	-2,1
Atzeritarrak	97.280	208.582	114,4	5,4	305.862	6,3
Egonaldia, batez beste	1,85	1,92	--	--	1,89	--


Batez besteko egonaldia: gauak/bidaiariak (egunak). Ehuneko puntuen aldakuntza.
Iturria: Eustat

Jarduera turistikoaren eboluzioa hilabetez hilabete aztertuz gero, ikus daiteke Aste Santuak¹⁷ eragina izan duela, hiruhilekoen arteko hazkundeak eragin baitzen apirilean bidaiarien eta ostatu-gauen kasuan (+% 18,7, +% 24,2); maiatzean ordea hazkundeak apalagoa izan zen (+% 9,8 eta +% 6,0) eta ekainean atzerakada erregistratu zen (-% 3,3 eta -% 5,2). Hiruhileko osoari egindako ekarpenari dagokionez, maiatzak gainerako hilabeteek baino ekarpen handiagoa egin zuen, bai bidaiarien, bai ostatu-gauen kasuan (% 35 ingurukoa). Baina, zalantzarik gabe, protagonismoa nazioarteko merkatuak izan zuen, bidaiarien (% 59,2, % 62,7

¹⁷ Aste Santua 2026an: Erramu Igandea martxoaren 29an eta Pazko Astelehena apirilaren 6an, 2025ean, berriz, apirilaren 13aren eta 21aren artean.

eta % 59,1) eta gaudien erdia baino gehiago (% 64,4, % 66,7 eta % 64,6) talde horretakoak izan baitziren hilabete guztietan.

Bidaariak eta ostatu-gauak Bilboko hotel-establezimenduetan



Iturria: Eustat

G-5en lehenengo seihilekoa positiboa izan da. Valentzia izan da hazkunderik handiena izan duena (+% 12,4), Madrilak eta Sevillak joera lauagoa izan dute (+% 1,4 bi kasuetan) eta Zaragozak atzerakada izan du (-% 0,7). Estatuko hiriburuen balantzeak (G-5) hobekuntza adierazgarria izan du (+% 3,4), G-3 hiriburu guztiak (+% 0,8) gaituz, Gasteizen (-% 2,3) eta Donostian (-% 0,6) beherakadak erregistratu baitira. Bilbok tarteko posizioa izan du (+% 2,2) Estatuko hiriburu handien antzeko dinamismoarekin, eta Euskadiko hiriburuen balantzea hobetu du. Hala ere, Iruñea izan da hazkunderik handiena erregistratu duena (+% 5,3).

Bilbok bat egin du estatuko dinamismoarekin eta Euskadiko hiriburuak gaitu ditu.

Benchmarking. Hoteletako ostatu-gauak

	I.2026	II.2026	Hiruhileko arteko Δ %	Δ % urte artean	2026ko I. seihilekoa Δ % urte artean
Madril	4.880.118	5.778.976	18,4	0,7	1,4
Bartzelona	4.818.527	5.834.281	21,1	0,1	2,3
Valentzia	1.135.965	1.477.400	30,1	13,7	12,4
Sevilla	1.581.095	1.793.975	13,5	0,3	1,4
Zaragoza	444.380	528.007	18,8	-3,5	-0,7
G-5en batezbestekoa (hiriak)	--	--	20,4	2,3	3,4
BILBO	446.192	662.269	48,4	2,4	2,2
Gasteiz	180.971	219.754	21,4	-2,5	-2,3
Donostia	352.939	606.563	71,9	3,2	-0,6
Iruñea	133.618	195.481	46,3	6,1	5,3
G-3ren batezbestekoa (hiriak)	--	--	18,4	0,7	0,8
G-9ren batezbestekoa (hiriak)	--	--	21,1	0,1	2,4

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Eustat eta EIN

GARRAIOA

Aireko garraioa

2026ko bigarren hiruhilekoan Bilboko aireportuak 2.166.655 bidaiari erregistratu zituen, 181.759 bidaiariren urte arte arteko hazkundearekin (+% 9,2). Hortaz, Loiu gehiengo historikoetara iritsi da beste behin ere, eta 2 milioi bidaiariren atalasea gainditu du lehen aldiz urteko bigarren hiruhilekoan. Nazioarteko segmentuak estatukoak baino ekarpen handiagoa egin du hazkunde horretan (+% 15,9 eta +% 3,4, hurrenez hurren), eskaintza finkatuak eta ibilbideen eta helmugen hazkundeak baldintzatuta.

Loiuk 2 milioi bidaiari baino gehiago izan ditu


Halaber, hiruhilekoko balantzearen arabera ikus daiteke nazioarteko segmentuak jarduera nabarmena izan duela (+% 81,5), eta segmentu nazionalak berriz hazkunde neurritsuagoa izan duela (+% 36,7), bi eskarien ekarpen erlatiboa orekatuz (% 51,2 estatukoa eta % 48,8 nazioartekoa). Operazioei dagokienez, 15.745 hegaldi zenbatu dira guztira, 2025eko bigarren hiruhilekoan baino 272 gehiago.

Aireko garraioa

	I.2026	II.2026	Hiruhileko arteko Δ %	Δ % urte artean	2026ko I. seihilekoa Δ % urte artean
Bidaiariak (kop.)	1.394.695	2.166.655	55,3	9,2	8,1
Hegaldi komertzialak	1.391.928	2.163.303	55,4	9,1	8,0
Espainiakoak	810.429	1.108.040	36,7	3,4	1,6
Nazioartekoak	581.499	1.055.263	81,5	15,9	16,7
Hegaldiak (kop.)	10.638	15.745	48,0	1,8	0,7

b: behin-behinekoa.
Iturria: Aena

Bidaiariak Loiuako aireportuan, hileko bilakaera



Jatorriaren arabera banakapena bidaiari komertzialei dagokie. Behin-behineko datuak
Iturria: Aena

Hilabeteko jardueraren xehetasunak hazkunde-ibilbidea islatzen du: maiatza izan da bidaiarien mugimendurik handieneko hilabetea (741.855) eta apirila urte arteko eboluziorik onena izan duena (+% 11,6). Hala ere, segmentuen arabera banakapenean egiaztatu daiteke ekainean atzerriko segmentuak soilik izan duela hazkundera (+% 17,3) eta horrek konpentsatu duela segmentu nazionalak izandako atzerakada (-% 1,5). Apirilean eta maiatzean ere atzerriko segmentuak hazkunde handiagoa izan du, bi digitukoa (+% 16,3 eta % 14,1), jatorri nazionalako hegaldiak alderatuz gero (+% 7,7 eta +% 4,2).

Lehenengo sei hilabetearen balantzeak aireportuaren jardueraren etengabeko hazkundera berretsi du, 2025eko lehen sei hilabete bakoitzeko 265.362 bidaiari gehiago izan baitira (+% 8,1).

Hobekuntza hori nazioarteko segmentuaren dinamismoari (+% 16,7) esker izan da, estatuko segmentuaren hazkundera apala izan baita (+% 1,6). Hortaz, nazioarteko merkatuarena da lehen sei hilabetearen erregistratutako urte arteko hazkundearen zatirik handiena (% 88,5).

Benchmarkinga. Bidaiariak aireportuetan

	I.2026	II.2026p	Δ % urte artean	Δ % hiruhileko artekoa	2026ko I. seihilekoa Δ % urte artean
Madril	16.189.434	17.871.322	4,2	10,4	4,2
Bartzelona	12.294.182	16.077.433	4,6	30,8	4,4
Valentzia	2.550.167	3.503.714	10,4	37,4	8,0
Sevilla	2.455.182	2.815.339	10,6	14,7	9,8
Zaragoza	143.653	183.737	-5,2	27,9	-1,9
G-5en metatua	--	--	4,9	24,2	4,9
BILBO	1.394.695	2.166.655	9,2	55,3	8,1
Gasteiz	67.465	122.960	31,4	82,3	31,7
Donostia	88.619	138.441	3,3	56,2	-0,1
Iruñea	56.913	64.792	7,4	13,8	7,9
G-3ren metatua	--	--	14,0	50,8	11,2
G-9ren metatua	--	--	8,4	36,5	5,0

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.

b: behin-behinekoa.

Iturria: Aena

Estatuko erreferentziazko aireportuek (G5) urte arteko hazkundera izan dute (+% 4,9) bigarren hiruhilekoan, Sevillak (+% 10,6), Valentziak (+% 10,4), Madrilak (+% 4,2) eta Bartzelonak (+% 4,6) izandako jarduera positiboari esker. Zaragozako jarduera, berriz, apaldu egin da (-% 5,2). Hiruhilekoen arteko alderaketaren arabera, hobekuntza partekatua izan da (+% 24,2), Valentzian bereziki (+% 37,4). G-3ko hiru hiriburuek ere dinamismo hori bera izan dute urte arteko jardueran (+% 14,0) zein hiruhileko artekoan (+% 50,8), eta Gasteizek izan du guztien artean bilakaerarik positiboena (+% 31,4 eta +% 82,3).

Loiuk estatuko aireportuek izandako dinamismo berbera izan du

Seihilekoaren balantzeari dagokionez, Zaragozak (-% 1,9) eta Donostiak (-% 0,1) izan dituzte taldeko urte arteko atzerakada bakarrak, eta bereziki nabarmenezkoa da Gasteizko aireportuak izandako dinamismo handia (+% 31,7). Bestalde, Loiuk eboluzio positiboa izan du (+% 8,1), Valentziak (+% 8,0), Sevillak (+% 9,8) eta Iruñeak (+% 7,9) izandakoaren antzera, eta Madrilgoaren (+% 4,2) eta Bartzelonakoaren (+% 4,4) gainetik.

Itsas garraioa


2026ko bigarren hiruhilekoan, Bilboko Portuak 8.985,9 mila tona kudeatu ditu; hortaz, horrek esan nahi du urte arteko hazkundea handia izan dela (+% 23,5). Eraitza oso positiboa da, baina 2025ean egindako jardueraren gainean zenbatzen da, eta orduko horretan, Petronorrek geldialdi tekniko bat izan zuen (maiatza eta uztaila artean), zeinak inpaktu handia izan baitzuen portuaren jardueran.

Bilboko Portuak
hobekuntza-ibilbidea
finkatu du

Solteko salgai likidoen dinamismoa izan da nabarmena (+% 46,5 urte artekoa) azken balantzean, eta portuko trafikoaren jarduerarik handiena salgai horiekin lotuta dago (% 64,5). Kontrara, solteko salgai solidoak (-% 10,0) zein merkantzia orokorrak (-% 1,1) beherakada izan dute jardueran. Edukiontzietan garraiatutako merkantziak hazkundea izan du (+% 2,2), baina kopuruak behera egin du (-% 4,9). Ontzien kopurua (694) duela urtebetekoaren berbera da.

Urteko lehenengo sei hilekoko balantzea positiboa izan da (17.339,6 mila tona, +% 12,3), eta 2025ko emaitzak gaitutako dituela dirudi, ekitaldi zaila izan baitzen azken hori. Hala eta guztiz ere, aurreko ekitaldian portuko jardura geldiarazi zuen faktore nagusietako batek bere horretan jarraitzen du oraindik; Trumpen Administrazioak eta bere muga-zergen politikak. Horrek ziurgabetasun are handiagoa erantsi dio munduko egoera aski konplexuari, eta hori guztia eragina izaten ari da herrialdeen arteko merkataritza-harremanetan eta, beraz, garraiobide moten araberrako fluxuetan.

Salgaien itsas garraioa



Iturria: Estatuko portuak

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barne Produktu Gordina

2026ko lehen hiruhilekoan, Bizkaiko BPGd-a % 2,3 hazi zen, eta 2023ko bigarren hiruhilekoan hasitako hobekuntza-erritmoa finkatu zuen. Lurraldeak % 2tik gorako urte arteko hazkunde-tasa izan du hamabi hiruhilekoz jarraian, eta aurreko lau hiruhilekoetan profila finkatzea lortu du (+% 2,1, +% 2,2, +% 2,4 eta +% 2,4, 2025eko I. eta IV. hiruhilekoen artean). Patroi hori berbera izan da EAE osoan.

Bizkaiak % 2,3ko hazkundea izan zuen 2026ko lehenengo hiruhilekoan


Enpleguak hazkundea izan du (+% 1,3) eta 505.358 LOB lanpostutara iritsi da, 2024an (494.849) eta 2008an (494.403) erregistratutako datua gaingidituz. Horiek dira bi erreferentzia maximoak. Ibilbide hori mantenduz gero, 2026an gehiengo historiko berri batera iritsiko da, eta perspektiban ikusita, pandemia, pandemia ostea, ziklo inflazionista, Irango gerra eta Trumpen Administrazioaren inpaktua gaingidituko ditu, 2019 eta 2026 artean izandako beste gertakari batzuen artean.

Miloi erdi lanpostu finkatu dira LOBen

Bigarren hiruhilekoari¹⁸ dagozkion Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapen-datuek erakusten dute Euskadiko ekonomiak % 2,1etik % 0,5era bitarteko hazkundea izan duela urte arteko eta hiruhileko arteko tasan, hurrenez hurren. Bestalde, lanpostuetan (LOB) kasuan % 1,3ko hazkundea izan da, eta 13.000 lanpostu inguru sortu dira. Eraitza horiek erakusten dute Euskadiko ekonomia dinamikoa dela, eta Bizkaian gertatzen denarekiko estrapolagarria dela.

2026ko bigarren hiruhilekoan, EAEko BPGd % 2,1 hazi da

Bizkaiko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtarakotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

¹⁸ Uztailaren 17an argitaratuak. Bigarren hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak irailaren 18an argitaratuko dira.

Industria

Bizkaiko ekoizpen industrialak urte arteko hobekuntzarekin (+% 3,2) itxi du bigarren hiruhilekoa (apirila-maiatza, behin-behineko datua), eta aurreko hiru hiruhilekoetako ibilbidea finkatu (+% 0,9, +% 2,2 eta +% 1,4) du. 2024an eta 2025eko zati batean erregistratutako profil negatibotik urrundu da. Susperraldi hori manufaktura-industrian oinarritu da (% 4,4), eta energiaren, gasaren eta uraren (-% 14,7), erauzketa-industrien (-% 4,0) eta uraren (-% 1,1) sektoreetan izandako atzeraldiak konpentsatu ditu. Sektore horiek pisu erlatibo txikiagoa dute eta aldakortasun handiagoa izaten dute oro har.

Industria-jarduera berriz ere igo egin da (+% 3,2)

Industria

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %				
	II.2025	III.2025	IV.2025	I.2026	II.2026p
Produkzio-indizea	-1,8	0,9	2,2	1,4	3,2
Manufakturen industria	-2,1	0,8	2,1	1,7	4,4
Erauzketa-industriak	3,0	-5,0	-9,9	-21,8	-4,0
Energia, gasa eta lurruna	2,4	1,5	4,6	-2,7	-14,7
Ura	-4,6	0,6	1,6	0,1	-1,1

Bizkaiko datuak, egutegiaren ondorioak zuzenduta. 2021eko oinarria. Erreferentzia-aldiko agregazio-indizearen urte arteko aldakuntza. 2025eko bigarren hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, apirila-maiatzari dagozkionak.
Iturria: Eustat

Merkatu-zerbitzua

Zerbitzuen sektoreak salmenten hazkundearekin hasi zuen 2026a (+% 4,5 eta +% 1,5, prezio arruntetan eta konstanteetan), aurreko hiruhilekoaren antzeko dinamismoa islatuz (+% 4,4 eta +% 1,5), baina hazkunde hori apalduz joan da. Jardueraren segmentu guztiek egin dute hobera, batez ere jarduera profesionalek eta zientifiko-teknikoek (+% 7,7 eta +% 4,8) eta ostalaritzak (+% 7,4 eta +% 3,9). Gainerako azpisektoreek portaera lauagoa izan dute, hazkunde nominalarekin, baina ez errealekin (prezio konstanteak). Azkenik, enplegu sektorialak hazten jarraitzen du (+% 1,2).

Zerbitzuen sektoreko salmenten igoera berriz ere (+% 4,5 eta +% 1,5, prezio arruntak eta konstanteak)

Merkatu-zerbitzua

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	III.2025	IV.2025	I.2026	III.2025	IV.2025	I.2026
Salmentak guztira	6,2	4,4	4,5	3,6	1,5	1,5
Garraioa eta biltegiatzea	11,5	3,7	2,3	7,9	0,0	-1,0
Ostalaritza	5,4	5,2	7,4	2,6	1,8	3,9
Informazioa eta komunikazioak	0,2	-0,9	1,9	-2,2	-3,7	-0,1
Jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak:	7,1	8,7	7,7	4,8	6,4	4,8
Administrazio jarduerak eta laguntza zerbitzuetakoak	3,3	3,3	2,8	1,1	1,1	-0,4
Landunen indizea	0,5	1,1	1,2	--	--	--

Bizkaiko datuak (2021eko oinarria); egutegiaren, enpleguaren (urtaro efektua kenduta) eta behin-behinekoen ondorioak zuzenduta uneko urterako.
Iturria: Eustat

Kanpo-merkataritza

Apirila-maiatza bihilekoan, Bizkaia 1.083,7 mila tona esportatu zituen 2.134,0 milioi euroko balioarekin. Bi joera kontrajarriren emaitza izan zen hori; hau da, bolumenean izandako atzerakadaren (-% 16,6) eta balioaren hazkundearen (+% 7,2) emaitza. Inportazioen (3.233,1 mila tona eta 3.379,5 mila euro) kasuan berriz, joera partekatua da eta hazkundeak izan dira urte arteko bi adierazleetan (+% 20,7 eta +% 45,1).

Beherakada handia izan da Bizkaiko esportazioetan (-% 16,6 bolumenean)

Esportazio ez-energetikoak 701,3 mila tonakoak izan dira, eta 1.793 milioi euroko balioa izan dute. Bolumenak hazkunde txiki bat izan du (+% 0,2), baina balioan erregistratutako hazkundea handia izan da (+% 8,2). Gainera, inportazio ez-energetikoek hazkundea izan dute bolumenean (1.076,1 mila tona eta +% 7,3) eta balioan (1.787,9 milioi euro eta +% 20,5). Produktu energetikoen jarduerari dagokionez, asko murriztu da esportatutako bolumena (-% 36,1), baina ez bolumena (+% 2,2). Erosketa energetikoen kasuan, bolumenak gora egin du eta batez ere balioak (+% 28,8 eta +% 88,4).

Ondorioz, esportatutako tona bakoitzeko batez besteko prezioa (guztizkoa) asko igo da, eta 1.969 eurora iritsi da. Inportatutako tona bakoitzeko prezioa ordea baxuagoa da, 1.000 euro ingurukoa (1.045 euro). Hala ere, produktu energetikoak kenduz gero, jarduera ez-energetikoen esportatutako tona bakoitzeko batez besteko balioa asko igotzen da, 2.557 eurora iritsi arte.

Kanpo-merkataritza; moneta-balioa eta bolumena.


	III.2025	IV.2025	I.2026	II.2026 ¹	Urte arteko Δ %	
					I.2026	II.2026 ²
Bolumena (mila tona)						
Esportazioak, guztira	1.598,9	1.690,2	1.515,9	1.083,7	-2,1	-16,6
Esportazio ez-energetikoak	985,9	973,1	947,9	701,3	-9,3	0,2
Esportazio energetikoak	613,0	717,2	568,0	382,4	13,1	-36,1
Inportazioak, guztira	4.443,7	4.491,8	4.587,7	3.233,1	7,5	20,7
Inportazio ez-energetikoak	1.517,9	1.374,7	1.490,5	1.076,1	5,8	7,3
Inportazio energetikoak	2.925,7	3.117,1	3.097,2	2.156,9	8,4	28,8
Balioa (milioi eurotan)						
Esportazioak, guztira	2.472,8	2.747,6	2.912,7	2.134,0	8,7	7,2
Esportazio ez-energetikoak	2.178,7	2.417,0	2.571,1	1.793,1	6,5	8,2
Esportazio energetikoak	294,1	330,5	341,6	340,9	28,9	2,2
Inportazioak, guztira	3.548,6	3.381,0	3.759,4	3.379,5	1,1	45,1
Inportazio ez-energetikoak	2.163,8	2.011,0	2.181,9	1.787,9	2,1	20,5
Inportazio energetikoak	1.384,8	1.369,9	1.577,5	1.591,6	-0,3	88,4

Bizkaiko datuak. 1. Apirileko eta maiatzeko behin-behineko datua. 2. lazko apirila-maiatzarekin alderatuta
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Emaitza horiek direla eta, apirila-maiatza bihilekoko Bizkaiko merkataritza-saldoa negatiboa da (-902,5 milioi euro), nahiz eta osagarri energetikoa kenduz gero positiboa bihurtu (+193,4 milioi euro). Erantsitako grafikoak kanpo-merkataritzaren egitura islatzen du, eta bertan ikus daiteke jarduera ez-energetikoak pisu handiagoa duela esportazioen eta inportazioen

balioan (% 84,0 eta % 52,9). Gainera, osagarri horrek egiten duen ekarpena askoz ere handiagoa da bolumenari dagokionez (% 64,7 eta % 33,3, hurrenez hurren).


Esportazio eta inportazio ez-energetikoen ratioa



Bizkaiko datuak. 2025eko apiril-maiatzari dagozkien bigarren hiru hilekoko datuak.
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Bizkaiak BPGari dagokionez duen esportazioen ratioa % 21,6koa da, 2025ean zehar erregistratutako balioen antzera eta 2022ko eta 2023koetatik urrunduz (prezio energetiko altuak). Halaber, 2019an erregistratutakoa baino pisu txikiagoa izan du, zerbitzuen jarduerak sustatu baitu hazkunde ekonomikoa eta horrek presentzia txikia baitu kanpo-merkataritzan.

Esportazioen ratioa BPGd-rekin alderatuta (%)



Bizkaiko datuak
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoetako kontuak (Eustat, 2022ko oinarria)

Gainera, egungo koiuntura geopolitikoak eta ekonomikoak ez du kanpo-jarduera sustatzen. Bizkaiko merkataritza-bazkide tradizionalak izan diren Europako ekonomia handien dinamismo eskasari (Alemania edo Frantzia) Trumpen Administrazioak eragindako ziurgabetasuna gehitu behar zaio, askotariko murrizketak eta zigorrak iragartzen baititu etengabe, zeharka zein zuzenean eraginez Bizkaiko merkataritza-jardueran.


ENPRESA-JARDUERA

Sozietate berriak

2026ko bigarren hiruhilekoan, 267 sozietate berri sortu ziren, azken urteotako emaitzarik onenetako bat. 2025eko laugarren hiruhilekoan soilik gainditu zen kopuru hori (292 sozietate berri). Urte arteko (+% 15,6; +36 sozietate berri) eta hiruhileko arteko hazkunde (+% 6,8; +17 sozietate berri) garrantzitsu horrek agerian uzten du hiriak sozietate berriak sortzeko garaian izan duen bultzada. Izatez, urteko lehen sei hilekoko agregatuan, 517 sozietate berri erregistratu ditu Bilbok, 2025 osoan sortutako sozietateen (984) erdia baino gehiago (% 52,5). Hortaz, azken urteetan sortutako sozietateen bolumenik onenaren erreferentzia da.

Hiriak 267 sozietate berri ditu, azken urteotako emaitzarik onenetakoa

Merkataritza-sozietate berriak



Iturria: Merkataritza Erregistroa

Merkataritza-sozietate berriak

	III. 2025	IV. 2025	I. 2026	II. 2026	Hiruhileko arteko Δ %	Δ % urte artean
Sozietate berriak	201	292	250	267	6,8	15,6
Lehenengo Sektorea	1	0	1	0	--	--
Industria eta energia	3	20	8	10	25,0	11,1
Eraikuntza	28	35	39	18	-53,8	-28,0
Zerbitzuak	169	237	202	239	18,3	21,9

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Zerbitzuen sektoreak sostengatu du beste behin ere hiriko sozietate berrien hazkudearen oinarria. Urteko bigarren sei hilekoan, sozietate berrien % 89,5 (239 enpresa) atxiki da sektoreri. Gainera, sortutako enpresa gehien dituzten lau jarduerak sektore horren barrukoak dira; hauek dira zehazki: higiezin jarduerak (38), finantza- eta aseguru-jarduerak (37), ostalaritza (34) eta informazioa eta komunikazioak (31). Hortaz, lau jarduerak horietakoak dira urteko bigarren hiruhilekoan Bilbon sortutako sozietateen erdia baino gehiago (% 52,4).

Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2026ko II. hiruhilekoan)

Higiezin jarduerak	38
Finantza- eta aseguru-jarduerak	37
Ostalaritza	34
Informazioa eta komunikazioak	31

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Desegindako sozietateak

2026ko bigarren hiruhilekoan, 73 sozietate desegin dira Bilbon, 2025eko aldi horretan bertan (-% 22,3) eta aurreko hiruhilekoan (-% 45,1) adierazitakoa baino gutxiago. Zehazki, higiezin jarduerarekin lotutako sozietateak dira gehien desegin direnak (12), eta, gero, jarduera profesionalekin, zientifikoekin eta teknikoekin (11), merkataritzarekin eta konponketekin (11) eta eraikuntzarekin (8) lotutakoak.

73 sozietate desegin dira dagoeneko, duela urtebete baino % 22,3 gutxiago

Hortaz, bigarren hiruhilekoko saldo garbia (sortutako sozietateak ken desegindakoak) positiboa da eta 194 sozietatetara iristen da. Lau sektore nagusiek partekatzen dute emaitza hori. Azkenik, seihilekoko balantzearen arabera, 206 sozietate galdu dira, 2025ean aldi horretan bertan galdutakoak baino 27 gutxiago; eta sortutako sozietateak (517) gehituz gero, sozietate berrien saldo positiboa 311koa izan da.

Desegindako sozietateak

	III. 2025	IV. 2025	I. 2026	II. 2026	Hiruhileko arteko Δ %	Δ % urte artean
Desegindako sozietateak	72	103	133	73	-45,1	-22,3
Lehenengo Sektorea	1	1	1	0	--	--
Industria eta energia	9	1	15	8	-46,7	300,0
Eraikuntza	9	16	16	8	-50,0	33,3
Zerbitzuak	53	85	101	57	-43,6	-33,7

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2026ko II. hiruhilekoan)

Higiezin jarduerak	12
Jarduera profesional, zientifikoak eta teknikoak	11
Merkataritza eta konponketak	11
Eraikuntza	8

Iturria: Merkataritza Erregistroa

2026ko II. hiruhilekoa

	Azken datua	Adierazleak Δ Urte artean (%)	Aldia
LAN-MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milaka)**	173,3	-9,2	II. hiruhilekoa
Biztanleria okupatua (milaka)**	157,7	-11,4	II. hiruhilekoa
Biztanleria langabetua (milaka)**	15,6	20,9	II. hiruhilekoa
Langabezia-tasa (%)**	9,02	2,3	II. hiruhilekoa
Langabe erregistratuak (pertsona-kop.)**	20.458	0,1	Ekaina
Afiliatuak (kop.)	200.042	1,4	Ekaina
Erregistratutako kontratuak (kop°)**	32.906	15,4	II. hiruhilekoa
MERKATARITZA			
Afiliatuak	19.646	--	Ekaina
Kontsumo-prezioak (indizea)***	104,1	3,5	Ekaina
TURISMOA			
Ostatu-gauak (kop.)	662.269	2,4	II. hiruhilekoa
Bidaariak (kop.)	345.524	2,5	II. hiruhilekoa
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaariak)	1,92	--	II. hiruhilekoa
GARRAIOA			
Salgaien itsas garraioa (mila tona)	8.985,9	23,5	II. hiruhilekoa
Bidaariaren aireko garraioa (kop.)	2.166.655	9,2	II. hiruhilekoa
ENPRESA-JARDUERA			
Industria-produkzioa (indizea)**	222,3	3,2	apirila-maiatza
Merkataritza-sozietate berriak (kop.)	267	15,6	II. hiruhilekoa
Desegindako sozietateak (kop.)	73	-22,3	II. hiruhilekoa

* Ehuneko puntuak.

** Bilboko egoiliarak.

*** Bizkaia dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentzia-aldiko agregazio-indizean oinarrituta. 2021eko oinarria

Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituta: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.